



Kinto egunak

Santa Ageda egunean Olaztiko kintoen ospakizunak amaitu, eta Altsasukoenak hasiko dira / 2-4

Ospitaleko pediatriako ZIUak espazio eta baliabide egokiak izatea eskatzen ari dira / 2-4

Dorraon hiru etxebizitza eta gizarte zentroa egiteko lanak hasi dira / 7

Irurtzango 226 etxebizitzek dagoeneko bosgarren edukiontzia erabiltzen dute / 6

Ruben Mendietak eta Israel Arbizuk domina bana Nafarroako Pista Estaliko Txapelketetan / 17

Pablo Lopez de Goikoetxea altsasuarra, 50 urte baino gehiago pilota sustatzen / 18-19

Bizitzaren koloreetaz hausnartzeko erakusketa egin du Rafa Etxarrik Pikuxarren / 23

16-17 URTEKOEK TXARTELA DERRIGORREZKOA DUTE AUTOBUSA ERABILI AHAL IZATEKO.

16 URTETIK GORAKO GAZTEEI ZUZENDUTA DAGOEN ZERBITZUA DA.

jai bus



IRURTZUN
948 600 694

ETXARRI ARANATZ
948 460 752

ALTSASU OLAZTI ETA ZORRIBO
OHARRAZKO GIZARTE
ZERBITZUEN MANDARONTATEA
Altsasu
948 467 662

Mank
s a k a n a

Pediatriako ZIU eskasa

Nafarroako pediatriako Zainketa Intentsiboetako Unitate bakarraren espazioa eta baliabide material eskasak hobetzeko eskatzen ari dira bertako langileak eta han egotea tokatu zaien amak

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Zainketa Intentsiboko Unitateak (ZIU) ospitale nagusietan besterik ez daude. Haietan lan egiten duten medikuak oso larri dauden gaixoez arduratzen diren espezialitate sendagilea dira, intentsibistak. Bizkortze eta suspertze tekniketari adituak dira. Haiekin batera espezializatutako erizainek lan egiten dute. Guztien artean gaixoen zaintza biziagoa egiten dute. Kasuaren arabera monitorizatu, arnagailua jarri, etengabeko zainketa eta beste egiten dute.

Esther Salgado Reguero erizain altsasuarrak azaldu duenez, "garai batean haurrak helduen ZIU sartzen zituzten; bukaeran haiendako bi box zeuden. Baina helduen eta haurren osasuna desberdina da eta, azkenean, lortu zen zaintza intentsiboko haurren ardura

pediatriako intentsibisten esku uztea". 2007an sortu zen pediatriako ZIU, jaioberrien atalean jarri zutena. Lau ohe ziren. "Behin-behinean hasi zen; lanean hasi eta ea zer martxan duen".

Han egoten diren haurren zaintza adin arte horretan adituak diren mediku eta erizainen esku dago. Pediatriako ZIUk hilabete batetik 15 urte bitarteko ume eta gaztetxoak hartzen ditu. "Guk lan egiten dugun unitatea Nafarroako osasun sistema publikoak duen pediatriako ZIU bakarra da". Egoera kritikoa dauden adin horretakoak gure unitatera eramaten dituzte; berdin dio Murchantetik, Beratik edo edonondik eraman. Patologia kroniko eta oso larriak, akutuak, hartzen ditu".

Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko pediatria sail guztia

garai bateko Bideko Ama ospitalean dago. Pediatria guztia ama berrien eraikinean dago, 4. solairuan, eta pediatriako ZIU eraikin orokorreko lehen solairuan, "baina beste eraikinean egon beharko luke". Salgadok azaldu duenez, "helduen anestesia ondoko bizkortzetarako unitatean utzi ziguten espazio batean dago gaur egun, guretako propio prestatutako parte batean". Gaineratu duenez, "gurea etengabe berregokitu eta adabakiak jartzen dituzten unitate bat da". Bostetan aldatu dute tokiz unitatea.

Aldaketak

Pediatriako ZIUaren lehen tokia "oso txikia zen, argirik, altzaririk, ezer gabea... Hura ikusten dudanean pentsatzen dut: 'nola egon gintezkeen hemen!'", oroitu du erizainak. Han denboraldi bat

egiten ari ziren guraso batzuek egunkarira gutuna bidali zuten 2016an. "Ospitaleratuta zuten umearekin eguneko 24 orduak ezin zutela egon jakinarazi zuten. Goizean eta arratsaldean hiruna ordu zituzten, baina gauetz ezin zuten haiekin egon".

Fernando Dominguez Cunchillos osasun kontseilari zela, "egun batetik bestera, helduen ZIUko lehen solairura lekualdatu gintuzten. Aldaketa egitea ez da ZIU gelditzea eta kitto. Gaixo zeuden haurrekin batera lekualdatu ginen. Horrek estres handia eragin zigun langileei, ezin duzue irudikatu", azaldu du Salgadok. Sei urtetan seitan aldatu dute tokiz pediatriako ZIU. Azarokoa da azken lekualdaketa "sei umerekin eta sei arnagailurekin egin genuen. Bronkiolitis puntarekin bat egin zuen. Ume oso txikiak ziren eta larri zeuden. Umearekin jarraitu behar duzu, baina, aldi berean, xiringa nondik hartu behar duzun ere ez dakizu, espazio horretara iritsi berria zarelako eta gauzak non dauden ez dakizulako. Umearen egoera okertuko balitz jakin beharko nuke gauzak non dauden. Inor ez da horretaz jabetzen".

Lekualdaketa hartara kudeatzailea eta zuzendaritza joan ziren. "Ordurako hedabideetan gure egoeraren berri ematen hasiak ziren zenbait ama, 'honek ezin du horrela jarraitu' pentsatzen baitzuten. Oso urduri zeuden

eta, horregatik, joan ziren. Zeren aurreko lekualdaketa kudeatzailea ez zen agertu", azaldu du Salgadok.

Erabili gabeko gela bat zen, ZIUtik atera eta oraindik ere ospitaleko solairu arrunt batera joan ezin zutenendako zuten gela hori, bitarteko zainketa behar zutenendako", argitu du erizainak. "Gela ireki batean parez pare dauden lau ohe zituen, eta parean heldu guztiak zeuden. Garbia eta zikina zegoenendako gela txiki bat genuen, besterik ez".

Salgadok azaldu duenez, "jaioberrien ataletik eta haurrendako ebakuntza gelatik oso urrun zegoen, eraikin orokorrean baitzegoen. Hemen zerbait pasatzen bada, hilko gara". Hamabost egunetara pasa zen. "Neska bat hil zen eta familiak ematea erabaki zuen. Organoak kendu arte han egon zen, 24 orduz bionbo artean, gainontzeko haur eta familiekin batera. Hori bizi beharra dago!" Unitateko lantaldeak egoeraren berri emateko hedabideetara jo zuen, lantaldea sortu zen, eta kontseilariarekin eta zuzendaritzarekin bildu ziren. Jakinarazi zieten, ez kokapena ez aretoa ez zirela egokiak. "Beste adabaki bat zen. Ez zegoen intimitaterik, oheak perpendikularki jarrita zeuden", gogoratu du.

COVID-19 gaitzak eragindako pandemia hasi arte han egon ziren. Baina pandemiaren ondorioz ama berrien 3. solairuko

Lantaldea

Pediatriako Zaintza Intentsibotako Unitatean gaur egun lau ohe daude, baina egoerak hala eskatzen duenetan sei ohe ere izan daitezke. Unitate horretan bost erizain bikotek lan egiten dute. Hau da, lanaldi osoan hamar erizain aritzen dira lanean. Haiekin batera erizainak diren bi umezain ere badaude. Haiek lanaldi partziala dute. Eta, azkenik, bost erizaintzako laguntzaile ditu unitateak. Lan txanda bakoitzean bi erizain eta laguntzaile bat aritzen dira lanean. Sei oheak beteta

daudenean hiru erizain eta bi laguntzaile izatera pasatzen dira. Eta egun osoan lan egiten duten mediku intentsibistak ere badituzte aldamenean.

Osasun sistemaren egoera ikusita, nahikoa langile diren galdetuta, Salgadok argitu duenez, "pediatriako Zaintza Intentsibotako Unitatea humanizatzea da gure helburua. Horregatik, ez dugu langileen premian fokua jarri". Bere ustez lantalde "egokia" dute, "baina ratioena ez dut sekula ulertu. Buruzagitzatik beti

kopuruari erreparatzen zaio: 'zenbat ume dituzue? Lau. Ongi, hirugarren erizainak jaioberriengana joan behar du. Sei daude. Bale, hor gelditzen da' Ez! Buruzagitzak kopuru faktoreari baino kualitateari erreparatu beharko lioke. Zeren gerta daiteke bi umerekin ezin iritsi ibiltzea, ohetik ezin urrun egotea. Eguberrietan hala ibili gara. Edo sei izan ditzakezu, haien gaitzak hohera egin dutenak eta ongi zaude". Altsasuarra buruzagitzan egona da, "badakit langileria kudeaketa zaila dela. Baina nire borroka hori da". Gaineratu duenez, "ebiduziak eta

argitaratzen den literaturak gero eta gehiago esaten du lan karga gaixo kopuruaren arabera ez dela jarri behar, baizik eta gaixoaren kalitatearen arabera. Baina gaur egun buruzagitzak dagoen haur kopuruari erreparatzen dio. Hori da egoera".

Pediatriako Zaintza Intentsibotako Unitatean lan egiten dutenek ume batzuk gogoan dituzte, "batzuekiko maitasun berezia" dute, nahiz eta ospitaleratzearen ondoren hil. "Motibazioa da, eta, aldi berean, haurrekin egiten den bidegabekeria salatzen duen hazia ere".

EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Ezkerretik lehen Garazi Albarracin Albiztur olaztiarra, hirugarrena Esther Salgado Reguero altsasuarra eta, aldamenean, Unai Hualde Iglesias, Parlamentuko presidentea.

pazienteen harrerako unitatera joan behar izan genuen. Ondoren, helduen tokira igo zituzten, atzera ere jaisteko. Azaroz geroztik beheko solairuan daude, "eraikin orokorreko lehen solairuko klimatizazioa hobetu beharra zegoelako. Hotz handia zegoen, amak berokiak eta bufandak jantzita egoten ziren". Gauzak ongi, martxoan seigarren aldiz tokiz aldatuko dute pediatriako ZIU eta lehengo tokira bueltatu-

ko dira, eraikin orokorreko lehen solairura, pazienteen harrerako unitatea dagoen tokira. "Han egonen gara gobernuak, parlamentuak edo bakarren batek beste zerbait hobe jartzea erabakitzen duten arte".

Hutsuneak

Helduen ZIUaren parekoa nahi dute pediatriarako ere: "oso ongi dago, haurrak ez dute gutxiago izan beharrik. Helduen boxak banakakoak dira, handiak, kontrol handikoak, telebista, akustikoki isolatuta, familiek beraien espazio propioa dute eta beste pasabide batetik pasatzen dira eta, beraz, bisita bat badago edo zerbait gertatzen bada beste boxetakoak ez dira ezertaz jabetzen. Zure aldamenekoa intubatu behar badut, zu ez zara ezertaz ohartzen".

Salgadok ziurtatu duenez, "ospitalekoa kontrako giroa da berez, eta haurrendako are gehiago. Umea bere ingurutik, etxetik edo ikastetxetik atera eta galdu egiten da. Harendako dena beldurrak dira. ZIU batean sartzearen inguruko eztabaidaezina den ebidentzia eta literatura dago: beldurra eta izua eragiten du luzera. Helduei gertatzen bazaie, umeei gehiago". Azaldu duenez, "gaur egungo pediatriako ZIU dagoen bezala, umeak berarekin dauden beste haurrei gertatzen zaiena ikusten eta entzuten ari

dira. Baita umeen familiak ere. Guztiz ikaratuta daude. Zerbait presaka egin behar izan ondoren, normaltasunera bueltatzen saiatu eta gaixo dagoen ume batek galdetu izan dit: 'Esther, ume horri pasa zaiona niri gertatu behar zait?' Gure haurrak horrela egotea ezin dugu onartu, ez osasun erakunde ez gizarte gisa", esan du irmo Salgadok. Bitartean "zuk lanean jarraitu beharra duzu, irribarre zabal bat egin eta 'maitea, dena ongi dago' esan beharra duzu".

Eskaeren garrantziaz

Erizain altsasuarrak azaldu duenez, "ume txikiak ez dira hainbeste jabetzen, baina 6-7 urteetatik aurrera badakite zer gertatzen den. Nerabeak guztiaz jabetzen dira". Belarrietan tapiak jartzen dituzte batzuk. Eta gurasoengan ere egoerak eragina duela azaldu du erizainak: "parekoari hori gertatu bazaio, eta arazo beragatik sartu bagara, nireari ere gerta dakioke hori. Gainera, denak egongelan elkartzen dira eta denek hitz egiten dute". Salgadok ziurtatu zuenez, "beldur eta ikara horiek ezin ditugu onartu. Badakigu zein garrantzitsua den buru osasuna, eta hemen ez gaude hura zaintzen eta kontuan izaten". Horregatik da intimitatea hain garrantzitsua. "Baita konfidentziasuna ere. Familiei informazioa ematean

denek entzuten dute, hura Anai Handiaren modukoa da, ez dugu horretarako tokirik".

Oheez aparte bi box oso txiki egokitu zituzten. "Ez dituzte ezta 6 metro karratu, 24koak izatea aholkatzen dute". Haietan ari dira klimatizazioa hobetzen. "Egoera kritikoa dagoen eta aparailu asko behar dituzten umeak ez ditugu han sartzen, ezin dugu. Edo arnasgailua sartzen da edo gu sartzen gara",

Sinadura bilketa

Dagoeneko 3.000 sinadura inguru dituzte www.change.org plataformaren bidez (<https://labur.eus/yRz7P>). Salgadok zabaldu zuen sinadura eskaera. "Profesional gisa ezin dugu halakorik onartu. Onena nahi dut nire lantokirako. Gure osasun sistemaren defendatzaile tinkoa naiz. Ume eta familiendako asistentzia hobetzea da eskatzen duguna". Gaineratu duenez, ama edo izeba gisa ere egin du eskaera. "Niretako nahi ez dudana besteendako ere ez dut nahi".

argitu du erizainak. Gaineratu duenez, "adabakiak dira. Sistema eta aparatua guztiak dorre batean integratuta, halakorik ez dugu. Pazienteen harrerako unitatea goizean ospitalean sartu eta ebakuntza txikiak egin ondoren jendea etxera bidaltzeko diseinatuta dago. Zailtasunak izanez gero, plantara igotzen dituzte. Hanez da arnagailurik jartzen". Horregatik, arnagailuendako hartuneak jarri behar izan zituzten paretan "edonola. Bazter guztietan kableak daude. Dorretan beharrezko mantenukoek egindako balda batzuetan dugu tresneria. Basea handitu behar izan zuten, monitoreagatik gainera erortzen zitzaizkigulako. Gauzak ez ditugu eskura. Ni azkar erantzuteko prestatuta nago, baina nire inguruneak batzuetan ez dit uzten. Gauzak hartzeko etengabe luzatzen egon behar dut", argitu du Salgadok.

Pediatriako ZIUari argi naturala egotea nahi dute. "Umeak galdu egiten dira. Ospitalean egun batzuk egon behar dute eta luzatzen denean ez dakite eguna edo gaua den. 'Zein eguna da?' galdetzen dizute. Erabat desorientatzen dira eta, behar bada gauez esna daude". Pertsianak jaitzitako bulego batean lan egitearekin parekatu du egoera erizainak, "ez dakizu goiza edo arratsaldea den".

Aukera

Pediatriako ZIU bat nolakoa izan beharko lukeen argi dute bertako langileek: "Truñeko, Lizarrako edo Tuterako helduen ZIUen parekoa; ez dugu ez gehiago ezta gutxiago nahi. Osasun Ministerioak eta zientzia erakundeek aholkatzen dutena beteko duena". Nabarmendu duenez, "ospitalean umeak familiaz lagunduta egon behar du eguneko 24 orduetan". Gaixo bakoitzak box bana izanen duen espazio bat nahi dute. "Intimitatearekin, konfidentziasuna bermatuko den tokia, argi naturala duena, tresneria integratua duten dorreak. Familiendako espazio bat izatea, negar egiteko aukera izan dezaten, han informazioa emateko, zerbait jateko aukera ematen dien tokia, eta dutxa hartzeko aukera eskaintzen diena". "Gutxienez hori", esan du Salgadok. "Ez dut uste eskatzen duguna hain arraroa denik".

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

Lekualdaketen kronologia

- **2007** Irekiera.
- **2016ko lastaila** Helduen ZIUra, 1. lekualdaketa.
- **2020ko martxoa** COVID-19, 2. lekualdaketa.
- **2020ko garila** Helduen ZIUra bueltan, 3. lekualdaketa.
- **2020ko lastaila** Helduen kirurgia handi ambulatorka, 4. lekualdaketa.
- **2022ko azaroa** Eraikin Orokorreko lehen solairua, 5. lekualdaketa.
- **2023ko martxoa** 6. lekualdaketa.

«AURREKO ORRIAN HASTEN DA

Haien unitateak ume jaio berrien eraikinean egon beharko lukeela uste dute lantaldeko ki-deek, "han baitago pediatria guztia". Haien iritziz, pediatriako larrialdi gainean kokatzea egokia litzateke. "Larrialdietara etorri eta ZIUren beharra duten haurrak lekualdatzea oso azkarra litzateke, igotzea besterik ez baita egin behar. Ebakuntza gelak eta dena oso eskura leudeke". Erizainak azaldu duenez, "gaur egun han ekitaldi areto izugarri handia dago. Azalera handia du. Hari, lasai asko, uko egin diezaiokegu, Nafarroako Ospitalea zen hartan beste bat dagoelako. Argi asko du, leihotzarrak dituelako".

Gurasoak

Erizainak ziurtatu duenez, "seme-alaben ospitaleratzean zehar gurasoak dira egoera sufritzen dutenak; nola edo hala egin behar dira. Zainketa intentsiboan ia ohe ondoan egoteak esan nahi du eta familiekin oso harreman estua sortzen da. Dena egonkor dagoen uneetan, erlaxatuago daudenean, haiek beraiek esaten digute: 'nola ari zarete lanean? Nola egon zaitezke horrela? Ikusten dut ez zarela iristen. Ikusten dut hau, hura eta bestea'. Baina ateratzean, hain gaizki pasa dutenez... Eta beldurra. Haietako askok galdetzen dute nola kexatu daitezkeen. Pazienteen arreta zerbitzuan. Hainbatek pentsatuko dute kexa jarriz gero errieta eginen digutela".

Hedabideetara jotzen hiru hilabete daramate. E-posta ugari bidali zituzten "eta guztiek ongi hartu gaituzte". Salgadok aitortu duenez, "zaila da kontatzea, eta, gainera, halakorik bizi ez baduzu, egoera hain da ezezaguna! Kontatu dugun hedabideetan eta abarretan jende guztia aho zabalik gelditzen da. 'Nola liteke halakorik?' esaten dute". "Hedabideetara jo duten familiek giza lantaldearen balio handia nabarmendu dute. Azpiegitura gabezia gure lanarekin tapatzen saiatzen gara. Umeen alde eginahalak egiten dituen lantalde horri esker batzuetan ez dira gauza gehiago gertatzen, edo azpiegitura horren hutsuneak ez dira hain agerian gelditzen".

Hala ere, guraso batzuek pausoa eman eta hedabideetara egoera salatzen duten gutunak bidali dituzte. Sinadurak emakumez-



Esther Salgado Reguero pediatriako ZIUko erizaina.

koenak dira. "Aitak ere egoten dira, baina amaren zaintza, amaren figura, oso garrantzitsua da. Bai, aitak bai, baina, batez ere, amak egoten dira". Gaineratu duenez, "erizain eta laguntzaile lantaldearen gehiengo ere emakumezkoak gara".

Nafarroako Parlamentuan

Erizainak azaldu duenez, "pediatriako ZIUaren 16 urteko ibilbidean, izan ditugun eta ditugun baldintzak kontuan izanik, estreinako aldiz Nafarroako Parlamentura joan ginen egoeraren berri ematera". Ilbeltzaren 11n izan zen. Nafarroako Parlamentuko presidente Unai Hualde Igleasiasek hiru erizain, Salgado barne, eta pediatriako ZIU egondako bi ama hartu zituen. "Esan zigun eskaera justua eta oso justifikatua zela. Gaztigatu zigun hiru hilabete genituela, maiatzeko hautes-

kundeengatik Parlamentua itxiko delako".

Osasun Batzordearen lan saio batean egon ziren. Egoeraren berri emateaz aparte, unitateak dituen hutsuneen berri ematen zieten parlamentariari: "umeak bionbo artean hiltzen dira, haur psikologiarako egokitu gabeko espazio bat da, intimitate gabea, 24 orduko unitatea izanda ere familiendako ez dago espaziorik (dutxa hartzea ume berrien eraikineko laugarren solairura joan behar dute), sartu nahi dutenendako tinbrerik ez dago eta gurasoak ateratzean berriro sartzeko konturatzen garenean edo telefonoz hots egiten digutenean atea zabaldu behar diegu... "Hain dira hutsuneak izugarriak!"

Gogoratu duenez, "ni eta nire lankidea jota joan ginen, aurreko igandean ume bat hil zelako. Amen lekukotzekin emozioa

egon zen. Gainera, guk aurretik esandakoak oso ongi indartu zituzten". Salgadok nabarmendu du alderdi eta koalizio guztiek aho batez onartu zituztela haien eskaerak, eta proiektuari lehen-tasuna ematea. "Orain arte ez zen horrela. Ez zuen finantzaketarik. Lehen premiazkoa ez zena,

"OSPITALEKOA KONTRAKO GIROA DA BEREZ, ETA HAURRENDAKO ARE GEHIAGO"

"EZ OSASUN ERAKUNDE EZ GIZARTE GISA EZIN DA ONARTU HAURRAK HORRELA EGOTEA"

Esther

20 urte lanean, plaza 2012an eskuratu zuen. "Helduekin lan egina nintzen eta plaza eskuratzerakoan ez nuen pediatriako ZIUko erizain plaza lehen aukera gisa jarri, tokatu zitzaidan. Aurreneko egunean errespetua ematen du. Orditik beste toki batzuetan plazak hartzeko deialdiak egon dira eta sekula ez naiz aurkeztu. Poz-pozik nago pediatriako ZIU. Ez naiz handik mugituko. Bokazioa da. Baina trebatzen segitzen dugu. Egutero ikasten dut. Gainera, egunean egon behar duzu, ZIUra etengabe tresneria berria ateratzen delako". Masterra egin zuen eta Master Akaberako Lana ZIU dauden ume kronikoen gurasoek dituzten beharrei buruz egin zuen. Doktoregoarekin ari da orain eta "pediatriako ZIUaren humanizazioa gaiarekin segitzeko asmoa dut. Gai horrekin ez naiz geldituko. Honek liluratzen nau eta nire lanean poz-pozik nago".

badirudi orain baietz. Denek hiru hilabetea gogorarazi ziguten, eta administrazioko erri-moak mantsoak direla. Ez ahazteko, etengabe ate joka ibiltzea aholkatu ziguten". EH Bilduk emendakiri baten bidez Nafarroako Gobernuaren aurrekontuan jasoak daude 125.000 euro proiektua idazteko. "Orain Osasun Departamentuak proiektuaren erredakzioa emateko deialdia egin eta lanak egiteko finantzazioa lotzea falta da". Parlamentutik pozik atera ziren.

Martxoan eraikin orokorreko lehen solairura bueltatuko dira, "ordurako berririk jaso ez badugu, berriro ekinen diogu aldarrikapenak zabaltzeari. Kontseilariaren eta presidentearen atek jotzea gelditzen zaigu". Azaldu duenez, "agerian jartzeak ere badu kostu pertsonala. Lan egiteaz aparte hala ibili beharra tristea da".



ASTEKOA

MIKEL MAZKIARAN

Ikusi makusi. Zer ikasi.

Ikusi makusi, zer ikusi? Baso sute bat ikusten dut. Zer ikasi?

Ikusi makusi, zer ikusi? Uholdeak nire herrian. Uda neguan.

Urbasa ez da kolorez aldatzen udazkena ailegatzen denean.

Ez dut ikusten. Ez dut ikasten.

Zergatik deitzen diote komunikabideek klima aldaketari bero bolada? Gauza batzuek interpelatu egiten gaituzte. Baina ez dugu ikasi nahi. Ikusi ikasi gabe. Klima eta energiaren arloko udalen konpromisoa honetan datza: lehenik, udalerriko berotegi gasen CO₂ isuriak gutxienez %40 murriztea hemendik 2030era bitartean. Neurri hauek Nafarroako 177 udalerrri (Nafarroako biztanleen %80) atxiki zaizkio itun baten bidez, baita Sakana ere.

BAINA LURRA HASERRE DABIL AZKENALDIAN KLIMA ALDAKETAREKIN

dabil azkenaldian klima aldaketarekin. Eta bere buruari galdetzen dio: nor da desastre honen arduraduna?

Ikusi makusi.

Delirium Tremens taldeak duela urte batzuk gomendatu zigun:

Ikusi eta ikasi.

Eta ondo entzun.

Hobeto heldu.

Aste honetan Sakanako eta Euskal Herriko herri askotan ospatzen da Santa Ageda. Kuadrillak makilekin lurra jotzen ikusiko ditugu, abesten duten bitartean. Euskal mitologiaren arabera, lurra neguko solstiziotik esnatzeko egiten da. Baina lurra haserre

margotzen du, ezkutuan, inork ikusi gabe. Mito bihurtu da. Baietz ezagutzen duzuela aurpegia tapaturik lore-sorta botatzeko puntuan dagoen gizonezkoaren irudia. Edo Londreseko Sotheby's enkante-etxe famatuan milioi bat libera esterlinengatik saldu zen unean suntsitu zen "Nesakia eta puxika" artelana.

Ferroleko Canido auzoak 2008tik urtero antolatzen duen kultur-ekimen batean parte

HARA ZER DIEN

Aurretiatzko Borondateak

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Aurretiatzko Borondateak aukera ematen digu idatziz uzteko zer osasun zainketa jaso nahi ditugun, baldin eta ezin badugu gure borondatea adierazi. Hala, osasun taldeek gure nahien berri izanen dute, eta horrek erabakiak hartzen lagunduko die. Bizitzako edozein unetan egin daiteke, eta nahi denean bertan behera uzten ahal da, edo aitzinekoaren ordezkari lehentasun berriak jarri.

Agiri hau egiteko komeni da osasun arloko langileekin mintzatzea, bai eta senide edo hurbilekoekin ere, jakin dezaten zein den zure nahia. Erabakitzen duzunean zer zainketa jaso nahiko zenituzkeen bizitzaren

bukaeran edo zerbaitegatik zure gaitasun psikiko edo fisikoa larriki mugatuak geldituz gero, idatziz jaso behar duzu zer jarraibide bete behar dituzten zuri arreta ematen dizuten osasun langileek.

Tratamendu jakin batzuk onartu edo baztertu egin ditzakezu osasun egoera zehatz batzuetan, edo jarraibideak ematen jaso nahi dituzun ala, kontrakoa, jaso nahi ez dituzun tratamenduei edo zainketei buruz (zainketa aringarriak, organoak ematea, eutanasia).

Nahi izanez gero, ordezkari bat edo bi izendatu daitezke aurretiatzko borondateen agirian. Konfiantzazko pertsonak izaten dira, 18

urtetik gorakoak. Haien eginkizuna da osasun taldearekin solaskide gisa aritzea pertsonak borondatea adierazi ezin duenean. Ordezkari horiek onarpena sinatu behar dute.

Aurretiatzko Borondateen Agiria norberak nahi duen erara idatz dezake. Bertan pertsonari egoki deritzona jasotzen da. Zernahi adieraz daiteke, baina araudiak baimendutako osasun jarraibideak soilik hartuko dira kontuan.

Idatzi ondoren, nahitaezkoa da hiru figura hauetakoren batek zure aurretiatzko borondateen agiria balioztatzea eta berrestea modu askean eta inork derrigortu gabe ari zarena: lekukoak, notarioa edo gizarte langilea. Bestalde, balioztu ondoren erregistratu egin behar da.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXE eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali behar dira erredakzioa. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

Banksy Altsasun?!

IZASKUN ETXEBERRIA ZUFIAURRE

ALTSASUKO HERRITARRA

Banksy grafitilari britaniarra da, kaleko artea egiten duen artista ezaguna bezain ezezaguna, bere obra mundu mailan ezaguna baita, baina inork ez baitu bere identitatea ezagutzen. Haren artelanak, maiz, satira-grafikoak dira politika, kultura eta batez ere etikari buruzkoak. Beti gauez

margotzen du, ezkutuan, inork ikusi gabe. Mito bihurtu da. Baietz ezagutzen duzuela aurpegia tapaturik lore-sorta botatzeko puntuan dagoen gizonezkoaren irudia. Edo Londreseko Sotheby's enkante-etxe famatuan milioi bat libera esterlinengatik saldu zen unean suntsitu zen "Nesakia eta puxika" artelana.

Ferroleko Canido auzoak 2008tik urtero antolatzen duen kultur-ekimen batean parte

hartzeko gonbidatu eta paretan bat erreserbatu dio Meninen interpretazio bat egin dezan. Orain arte ez du margotu. Ferroleko Espainiako estatuko Banksyren lehendabiziko obra litzateke.

Duela hamar bat egun Altsasuko Geroa Baik herrian "ezker abertzalearen fakzioen arteko pintadak" gaitzetsi zituen eta "eginiko pintadak ahal bezain agudo ezabatuko direla" gehitu zuen. Oker ez

banago, kutsu politikoa duten pintada guztiak ere azkar asko garbitzen dituzte udaletzeko langileek eraikin publiko zein pribatuetan. Aldiz, bestelakoak ez.

Laster beteko dira bi urte Otadiako parkera ematen duen tapia batean pintada bat agertu zela. Gauez. Inork ikusi gabe. Auzotarrek instantzia bat egin zuten udaletzeko langileek garbi zezaten; ondoren, bilera bat ere egin zuten alkatearekin;

baita beste eskari idatzi bat ere... Dena beharrezkoa den protokoloa betez eta orain arte, pazientzia handiz, esperoan. Alferrik, ordea.

Eta azkenean, pentsatzen hasita, kontua ez al da, bada, izango udalak mantendu nahi izango duela Banksyrena delakoan? Euskal Herriko edozein bazterretan eta Ferrolen baino lehenago egin du, aizue! Hortxe ote zegok/zegon koxka?!

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidar Betelu Garboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436

Ainhua Etxebarria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Irurtzun barna materia organikoa jasotzeko 27 edukiontzi jarri dituzte.

Bosgarren edukiontzia erabil daiteke jada

Sakanako Mankomunitateak giltzaz itxitako 27 edukiontzi marroi jarri ditu Irurtzunen. Haiak erabiltzeko dagoeneko 226 etxebizitzek eman dute izena. Legearen arabera 2027rako materia organikoaren %70 berezia jaso behar da, egun %38 bereizten da

IRURTZUN

Etxeetan sortzen diren hondakinak %40 materia organikoa da. Irurtzunen frakzio hori kudeatzeko auto eta auzo konpostaren aldeko apustua egin zuten. Baina eredu hori gehiago zabaldu ezin denez, eta legeak behartzen duenez materia organikoa gehiago bereiztera, Irurtzuno Udalak eta Sakanako Mankomunitateak 5. edukiontzia aldeko apustua egin zuten. Edukiontzi marroiak Irurtzuno paisaiaren parte dira abendu akaberaz geroztik.

Mank-eko Hondakin Zerbitzuti jakinarazi dutenez, 5. edukiontzian izena emateko epea abenduaren 20an zabaldu zutenetik 226 etxebizitzek eman dute izena. Guztiek 10 litroko ontzi aireztatuak, konpostatu daitezkeen poltsak eta edukiontzi marroiko giltzak jaso dituzte. Gainera, poltsak bukatzen zaizkien Fruitis fruta dendan, Zure Ekodendan, Coviranen eta udaltxean poltsak doan eskuratzeko aukera dute.

Legedia eta izen ematea

226 etxebizitza horiei auto edo auzo konpostagailuen bidez materia organikoa bereizten zuten 204 etxebizitzak gehitu behar zaizkie. Gaur egun Irurtzunen materia organikoa bereizten duten etxebizitzak 430 dira, herriko etxebizitzak %39,5. Hala ere, Mank-eko Hondakin Zerbitzuti gaztigatu dutenez, "legean jasotakoa betetzeko etxebizitza gehiagok eman behar dute izena". Izan ere, indarrean den legedia araberako 2020 urterako herriarrek sortutako materia organikoaren %50 berezita jaso eta tratatu behar zen. 2027rako kopuru hori gutxienez %70 izan behar du.

MODU BATERA EDO BESTERA ETXEEN %39,5EAN ARI DIRA MATERIA ORGANIKOA KUDEATZEN

Horregatik, helburua lortzeko irurtzundarrei izena emateko eta hondakinak bereizteko dei egin diete. Zerbitzuko iritziz, "konpostatzeko aukerei 5. edukiontzia gehitzeak legea betetzeko portzentai horretara heltzea erraztu beharko luke". Izena eman nahi duenak 900 730 450 doako telefonora hots egin dezake. Bestela, otsaileko eta martxoko asteartean, azoka egunetan, Mank-eko hezitzaileak plazan egonen dira eta haiengana joateko aukera dute irurtzundarrek. Herrian edukiontzi marroiak ikusi aurretik eman zuten izena ematen segituko dutela espero dute Mank-ekoek.

Ibarreko erakundeko Hondakin Zerbitzuko langileak ilbeltzeko bigarren asteaz geroztik materia organikoa jasotzen ari dira Irurtzunen. Orain arte astean 773 kilo hondakin organiko bildu dituzte. Horrek ekarri du edukiontzi berdeko hondakinak, errefusa, %10 murriztea.



Lehiaketara aurkeztutako bideoen emanaldia. ARTXIBOA

Sexualitateari buruzko film laburren lehiaketa deitu dute

Sexualitatearen ikuspegi positiboa ematen duten ikus-entzunezkoak aurkez daitezke

ALTSASU

Gozamenez programak eta Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak *Sexualitate hozkadak. Sexu eta Harremani buruzko istorioak* leloa duen film laburren lehiaketa antolatu dute. Haren bidez antolatzaileek sexualitateari buruz hausnarketa sustatu eta "haren gainean ditugun hainbat ideia eta ikuspuntu" adierazteko bidea eman nahi dute, batetik. Bestetik, sexualitateari buruzko "erredukzionismoetatik urrundutako ikuspuntu positiboa, plurala, integratzailea eta irekiak dituzten mezuak jaso nahi dituzte". Azkenik, Gozamenez lehiaketaren bidez "aniztasunean eta gozamenean zentratzea, bost zentzumenen, fantasien, ilusioen eta abarren bitartez, pertsonen garapen globala bilatzen lagunduko" duten lanak nahi dituzte.

Helburu horiei jarraituz, lehiaketara aurkeztuko diren lanek "sexualitatea zerbait positibotzat hartu" beharko dute. "Izan ere, pertsona bakoitzak bere modura disfrutatzen du, bost zentzumenen bidez, dastatuz, barre eginez, dantzatuz, komunikatuz... eta norberak nahi duen modu guztietan!". Halako film laburra egiteko inspirazio bila dabilzanak www.gozamenez.com webgune bisitatu dezakete, han ikusgai baitaude Gozamenez lehiaketako aurreko edizioetara aurkeztutako ikus-entzunezkoak.

Baldintzak

Lehiaketak sormen alorreko ikus-entzunezko genero eta tek-

nika guztiak onartuko ditu. Parte hartu nahi dutenek alde aurretik Intxostiapunta gazte txokoan izena eman behar dute, epea martxoaren 5ean despedituko da. Hori egin ondoren, ikus-entzunezkoak apirilaren 16ko 20:00ak arte aurkez daitezke gazte gunean, 17:00etatik 20:00etara. Plika sistema erabili beharko da ikus-entzunezkoa eta egiletzari buruzko xehetasunak emateko.

Film laburrak edozein gailu digitalean grabatu daitezke. Lanak euskaraz edo gaztelaniaz egin daitezke. Haien iraupenak ezin dute hamar minutu gainditu, kredituak barne. Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake, alde aurretik argitaratu ez direnak. Gazteria Zerbitzuak jakinarazi duenez, Nafarroako Gozamenez lehiaketara aurkeztu diren lanak ere aurkez daitezke. Formatua edozein dela ere, lehiaketara aurkeztutako ikus-entzunezkoak VLC media player programarekin ikusteko aukera izan behar da.

Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak www.altsasu.eus webgunean jarriko dituzte eta apirilaren 24tik maiatzaren 7ra arte haren bidez gogoko lanaren alde botoa emateko aukera izanen dute 12eta 30 urte arteko gazte altsasuarrek. Sari emate ekitaldia maiatzaren 12an izanen da. Gozamenez programako kideek banakako eta taldekako sariak banatuko dituzte, 100 eta 200 euro hurrenez hurren. Publikoaren saria, berriz, 100 eurokoa da.

Kontzejua alokairurako hiru etxebizitza eraikitzen hasi da

Haien azpian gizarte zentroa eraikiko da, irailerako. Etxebizitzak 2024ko udazkenerako prest izanen dituzte

DORRAO

Meistruban etxea edo herriko etxea 1850ean jasotakoa da. Hura goitik behera berritzeko lana 565.300 euroren truke (BEZ barne) Etxeberrikoa Lantegi SL enpresari eman dio Dorraoko Kontzejuak. Haren presidente Idoia Resano Igoak jakinarazi duenez, "lanak joan den astean hasi ziren; lehenago hasi behar zuten, baina elurra kendu gabe zegoenez ezin izan zuten".

Beheko solairuan, kontraterrenoan, gizarte zentroa hartuko du. Resanok azaldu duenez, "lokal horrek bilerak, ikastaroak edo beste edozer gauza antolatzeko aukera ematen digu". Gizarte zentroak 37,19 metro karratu izanen ditu, baita espazio erabilgarria (8,5 m²) eta komuna (6,44 m²). Aerotermiako bero punpa bidez berotuko da. Atea iparraldean izanen du. Eta Batzarreta kalean dagoen estalpea terraza (42,44 m²) gisa erabiliko da. Gizarte zentroa egokitzeko lanek agorrilaren 25erako despiditua egon behar dute. Haren aurrekontua 67.074,99 eurokoa da. Horretarako Dorraoko Kontzejuak Cederna-Garalurren 50.000 euroko dirulaguntza jaso du.

Etxebizitzak

Meistruban etxe edo herriko etxearen goiko bi solairuetan hiru etxebizitza egingen ditu Dorraoko Kontzejuak. Lehen solairuan bi etxebizitza txiki eraikiko dira. Bakoitzaren sarrera ekialdean izanen da. Etxe batek, hego ekialdekoak, sukalde-jangela-egongela, banalekua, komuna eta gela du (46,58 m²). Ipar ekialdekoak, berriz, bi logela ditu (52,05 m²). Biek ere portxea dute (9,10 m² bakoitzak), eta handik arropa zabaltzeko tokira joaten da.

Bigarren solairuan, teilatupean, etxebizitza handi bat egonen da honako espazioak dituena: sukalde, egongela, banalekua, 2 komun, 3 gela eta portxea (117,20 m²). Hara igotzeko behekoen arropa zabaltzeko tokitik gora egiten duen eskailera bat izanen da. Etxe bakoitzak aeroterma-

ko bero punpa bana izanen du berotzeko. Hiru etxebizitzak 2024ko irailaren 30erako eginak egon beharko lukete. Haien egiteko aurrekontua 405.166,49 eurotan aurreikusi zuen kontzejuak. Etxe bakoitzeko 60.000 euroko dirulaguntza jasoko du kontzejuak, 180.000 guztira.

Kontzejuaren ekimena

Zaharberritzea Nasuvinsa enpresa publikoarekin egitea aztertzen aritu zen kontzejuak, baina Resanok azaldu duenez, "azkenean ez dugu Nasuvinsarekin egin. Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko dirulaguntza oso onak daude, eta gure kabuz egitea erabaki genuen". Zergatia ere azaldu du: "Nasuvinsarekin egin ez gero, berak kudeatu behar zuen eta hainbat urtetan dirua berarendako izan behar zuen. Guk egitea hobe ateratzen zen, nahiz eta lan gehiago izan". Hala ere, aurrekontu handiak zenbait ideia bazterrean uztea ekarri du, esaterako: gizarte zentroan denda eta taberna egitea; haren parean dagoen Batzarreta kaleko estalpean ez da aterik jarriko. Horiek gauzatzea hurrengo kontzejuaren lana izanen da.

Etxebizitzak alokairurako izanen dira. Haietakoren bat eskuratzeko Dorraoko Kontzejuak puntuagarriak izanen diren baldintza sorta bat lantzen ari da gaur egun. Resanok horietako batzuk aurreratu ditu: "Dorraon bizi beharko dute eta herrian erroldatu beharko dira". Bestalde, eskaeren baremazioa egiterakoan puntu gehiago jasoko dituzte: "herrian bizi eta erroldatuta daudenak, nahiz eta orain kanpoan bizi herrian bizi izandakoak, herriarekin harremana dutenak... Baldintzak oraindik argitu gabe ditugu", azaldu du kontzeju buruak.

LANAK EGIN BITARTEAN ETXEBIZITZAK EMATEKO BALDINTZAK ZEHAZTUKO DITUZTE



m
Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan



Alejandro Berastegui Albillos (Iruña)

Alejandro Berastegui Albillos iruindarra Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza LEINN graduako 2. maila ikasten ari Mondragon Unibertsitatean, Bidasoako campusean.

hainbat lagun ADErekin ez zeudela oso gustura eta, informazio pixka bat gehiago bildu ondoren, azkenean LEINN egitea erabaki nuen. Gainera LEINN gradua oso praktikoa da eta "learning by doing" metodologiak (egiten ikasi) laguntzen gaitu gauzak hobeto ikasteko.

Nola baloratuko zenuke LEINNen bizi-tako esperientzia?

Oso positiboa izan da. Enpresa baten sorkuntzaren eta kudeaketaren inguruan asko ikasteaz gain, gradu honek pertsonalki garatzeko aukera handia ematen digula nabaritu dut, eta hori asko baloratzen dut. **Zer da gehien gustatzen zaizuna Mondragon Unibertsitatean?**

Batez ere sareari emango nioke balioa, Mondragon Team Academyk duen sare zabala mundu guztian zehar oso balioetsua da guretzat; izan ere laborategi desberdinetako ekintzaileekin harremana dugu gure bidaietan eta sortzen diren harremanak eta kontaktuak oso interesgarriak dira.

Lehen egunetik enpresa bat sortu duzue LEINN graduan, nola egiten da hori?

Bai horrela da. Gure coach eta aholkulariek (horrela deitzen dira, gure graduan ez baitira ohiko irakaslerik) tresnak ematen dizkigute gure enpresak sortu eta kudeatzeko. Guk ikasi behar dugu enpresa moduan zer eginkizun eta betebeharrak ditugun, bai kontabilitatea, bai gai fiskalak, etab.

Zer proiektu mota garatu izan dituzue enpresarekin LEINNen barne?

Oraindik bigarren mailan gaudelarik ez ditugu proiektu gehiegi garatu, baina aukera izan dugu batez ere zerbitzuei lotutako proiektuak garatzeko, adibidez umeei zuzendutako tailer desberdinak antolatu edota edota lurutzungo igerilekuaren tabernaren kudeaketa osoa. Proiektu errealek garatuz ikastea oso interesgarria da, ez baituzu bakarrik teoria ikasten baizik eta egiten ikasten duzula.

Zer iruditzen zaizkizu atzerriko esperientziak?

Lehenengo mailan Berlinen izan ginen eta laster Costa Ricara goaz. Hirugarren mailan Corea eta Indiara joango gara. Aurreko urteko esperientzia oso motibatzailerik izan zen, sei astetan zehar Berlinen egon ginen bertako ingurunea ezagutzeko eta zenbait proiektu garatuz. Costa Rican Garapen Iraunkorrek Helburuei lotutako proiektuak garatzeko aukera izango dugu.



SAKANAKO ERRALDOIAK

Kolorretan itzazu

28 orrialdetako liburuxka, ilustrazio eta azalpenekin

ESKUALDEKO
LIBURUTEGI HAUETAN

SALGAI:

IRURTZUN: MARTXUETA

ETXARRI ARANATZ: KAXETA

ALTSASU: ARKATZ ETA LIBURUNDA

gik DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

Merkataritza bulkatzeko planak laguntza jaso du

Toki erakundeek eta SDOZEK elkarlanean, sarean egindako lanaren eta partekatutako estrategiaren emaitza da egitasmoa. Egin duten plana Sakanarako eta, bereziki, merkataritza jarduerarako proiektu bultzatzaile izatea nahi dute

SAKANA

Ibarreko 15 udalek, Sakanako Mankomunitateak eta Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak (SDOZE) ibarreko merkataritza sustatzeko proiektua ondu zuten joan den urtean. Egitasmoa, berez, Sakanako merkataritza laguntzeko eta bultzatzeko plan bat da, sei arlo eta 13 ekintza dituenak. Haren sustatzaileen iritziz, ekonomia sektore hori "funtsezko sektorea da, bai enplegu sortzaile gisa, bai eskualdeko biztanleendako oinarritzko zerbitzuen hornitzaile gisa". Proiektuaren oinarrian 2018a egindako ibarreko merkataritza eskaintzaren azterketa dago. Han jasotakoei jarraituz egin zuten proiektua, hainbat behar eta erronkari erantzuteko asmoa duena, besteak beste, txikizkako merkataritzaren sektorea bultzatzeko eta merkataritza sarea bizi, lehiakor eta modernizatua mantentzeko.

Egitasmoak 271.000 euroko aurrekontua du. Proiektua Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Berreskuratze, eraldatze eta erresilientzia planeko dirulaguntza deialdira aurkeztu zuten. Aste honetan jakin da Next Generation funtsetik 217.055,27 euro jasoko dituela Mank-ek proiektu hori garatzeko. Aurrekontuaren %80 estaliko dute horren bidez, eta gainontzeko %20a, 53.944,73 euro, udalek jarriko dute. Baina denek ez dute ekarpen bera egingen, hiru irizpide zehaztu baitituzte horretarako: herri bakar batean egiten diren jarduerak udal horrek ordaintzea, ibar guztirako ekintzak herriek duten denda kopuruaren arabera finantzatzea eta Hondakin Zerbitzuarekin lotura dutenak Mank-en kontu izatea.

Eragina

Sustatzaileek egitasmo horretako ekintzak gauzatu lortu nahi



Egitasmoa sinergien emaitza da, eta sinergien motore izan nahi du.



dute Sakanako merkataritzan "kalitatezko enplegu iraunkorak" sortzen laguntzea. Azaldu dutenez, "proposatutako planeko ekintzek hobetu egiten dituzte merkataritza sektoreko enpresa txikiek eraldaketa digitalarekin bat egin ahal izateko dituzten bitartekoak, tresnak eta baliabideak. Horrela, merkatuaren aldaketari eta kontsumitzaileen eskaerari gehiago eta hobeto erantzuteko gaitasuna izanen dute".

Gaineratu dutenez, "merkataritza eremuetan egindako hobekuntzek eta egokitzapenek, sustapen, ikusarazte eta publizitate kanpaineekin batera, merkataritza jarduera dinamizatuko dute, batetik, bezero gazteagoak erakarritik, eta, bestetik, egungo erosleak sendotuz eta denendako erosketara esperientzia erosoagoa eta erakargarriagoa eskainiz".

Udaletako, Mank-eko eta SDOZEko ordezkarien iritziz, "horrek guztiak lagundu egiten du sektorean enpleguak mantentzen, belaunaldien arteko erreleboa sustatzen eta ekintzaile berriak sartzen". Horri lotuta, gogorazi dute Cederna-Garalurren ekintzailetza zerbitzuaren bidez 26

ekintzailek beraien enpresa sortu eta autonomo gisa lanean hasi zirela joan den urtean. Haietako batzuk merkataritzaren sektorean izan ziren, eta, gutxienez, seiren kasuan belaunaldien arteko erreleboa edo lehendik zeuden nego-

zioen eskualdaketa beren gain hartu zuten.

Arazoak eta helburu zehatzak

Sustatzaileek Sakanako merkataritzarako zazpi arazori konponbidea eman nahi diete. Lehenik, txikizkako merkataritza sektorearen eten digitala konpontzea. Aldi berean, saltokietan dagoen belaunaldi errelebo ezari konponbidea eman nahi dio. Horrekin batera, merkataritza tradizionala mehatxatzen duten zenbait dinamika azkartzen ari dira merkatuan, besteak beste, online erosketak. Planarekin eragotzi nahi dute herri txikiek funtsezko zerbitzurik ez izatea edo zerbitzu horiek galtzea. Helburua ere bada tokiko elikagaien, elikagai iraunkorren eta kalitatezkoen ekoizleen eta elikagaien merkataritzaren arteko lankidetzak edo loturak estutzea. Horiekin batera, aukera baliatu nahi dute merkataritzan sortzen diren hondakinak egoki kudeatu eta erabilera bakarrek ontzia erabilera saihesteko. Azkenik, merkataritza sektorearen atomizazioari aurre egin nahi diote.

Hori guztia lortu ahal izateko zortzi helburu zehatz ditu planak. Batetik, tokiko merkataritzan erosketak handitzea eta Sakanako saltokietara bezeroak erakaritzea. Bestetik, establezimendu berriak sortzea eta oraingoak mantentzea. Merkataritzak Sakanan dituen euskarri digitalei dagokionez, irudi bateratua eta

funtzionalitate optimizatuak lortzea. Populazio eta denda gehien dituzten herriak Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz eta Altsasu dira. Proiektuaren bidez merkataritza gune nagusi horien irudia eta erakargarritasuna hobetu nahi dute.

Aldi berean, Sakanako merkataritza gune nagusietan hutsik dauden 15 merkataritza lokal birgaitu, irudia hobetu eta higiezin merkatuan zirkulazioan jarri nahi lituzkete. Egitasmoan jaso denez, elikagaien merkataritzan erabilera bakarrek ontzien erabilera %50 murriztu nahi dute. Horrekin batera, gutxienez ibarreko 20 saltoki haien kudeaketa eta errentagarritasunerako funtsezko alderdietan trebatu nahi dituzte, datu berritzaileak erabiltzeko tresnak eta metodologiak erabiliz. Bukatzeko, hedabide digitalean eta sare sozialetan egindako dinamizazio eta publizitate kanpainen eragina gutxienez %50 handituko dute.

Planeko ekintzak 2024ko maiatza bitartean gauzatu dira. Heldu den urtean bakarrik egingen den ekintza bakarra dago: dendarien prestakuntzarena.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

**PLANEKO 6
ARLOETAKO 13
EKINTZAK 2024KO
MAIATZA BITARTEAN
GARATUKO DIRA**

sarea
Arolar eta Karrape irratiko esatariekin

Astelehenetik ostiralera
11:05ean
Beleixe irradian

bla **!?**

beleixe 107.3 FM
Online entzuteko:
www.guaixe.eus



DIGITALERAKO TRANTSIZIOA

1. Sakanako merkataritzak bere burua ikustarazteko eta bere produktuak saltzeko tresna eta euskarri digitalak ditu: www.sakanakogida.eus web orria, SakanaAPP telefono mugikorrendako aplikazioa eta Top Topa merkataritza elektronikoko plataforma. Horietan guztietan edukia, erabilgarritasuna eta funtzionaltasuna egokitzeko eta bateragarri egiteko beharrezkoak diren hobekuntzak aztertu, proposatu eta gauzatu nahi dituzte. Helburua da hiru euskarrien arteko integrazioa, osagarritasuna eta koherentzia lortzea. Aurrekontua: 7.647,2 euro.



SALMENTA PUNTUAREN ERALDAKETA

5. Etxarri Aranazko merkataritza gunean LED teknologiko eta energia eraginkortasun handiko luminaria bereziak jarriko dira. Plazan zuhaitzak daudenez, erdialdea argizatuta dago, baina saltokien fatxadak ilundu egiten dituzte zuhaitzek. Horregatik, egungo argiztapenaren ordeztu argi lauso bat jarriko da, zutabezko luminarien bidez. Aurrekontua: 37.445,87 euro.




JASANGARRITASUNA ETA ZIRKULU EKONOMIA

7. Sakanako 248 saltokietan Zero Hondakin kanpaina bat egitea, merkataritzak bezeroekin duen elkarreaginean sortzen den hondakin kopurua murrizteko helburuarekin. Horretarako, batetik materialak banatuko dira dendetan (silikonazko, kotoia, jute edo beste materialetako poltsak). Bestetik, kartelak eta sare sozialetarako edukia egiten da. Azkenik, saltoki bakoitzari hondakin gida bat emanen diote, saltokiko jabe eta langileak hondakin sorrerako prebentzio praktiketan hezi eta hondakin bereizketa optimizatzeko. Gainera, 248



HORNIKUNTZA KATEA ETA TRAZABILITATEA

8. SakanaAPP aplikazioan funtzionalitate berri bat garatzea, eskualdeko tokiko produktuen eskaintza ikusarazteko, "Dastatu Sakana" irudiaren bidez. Funtzionalitate horri esker, aplikazio hori erabiltzen duten kontsumitzaileek eta bisitariak zuzenean egiten duten hurbileko ekoizleak eta tokiko produktuaren aldeko apustua egiten duten saltokiak ezagutzeko aukera izanen dute, haietarako sarbidea erraztuz eta, horrela, merkaturatze zirkuitu laburrak indartuz. Aurrekontua: 2.388,54 euro.



SEINALEZTAPENA ETA PRESTAKUNTZA

9. Sakanako txikizkako merkataritzari zuzendutako prestakuntza teoriko eta praktikoaren eskaintza. Bi ikastaro izanen dira. Aurrena, hamar saltokirendako izanen da. Haien jabeek bezeroen arreta hobetzeko prestakuntza jasoko dute, datu-baseak erabiliz eta bezeroen joerak eta portaerak aztertuz. 10 orduko iraupena izanen du ikastaro horrek. Haietatik, 4 ikasgelan izanen dira, establezimenduko bezeroarentzako arreta plan bat diseinatzeko. Plan horretan honako hauek jasoko dira: eguneroko arreta, saldu ondoko zerbitzua eta gatazkak konpontzea. Beste ordu bat bezero misteriotsu merkataritzan teknikaren bidez beteko da eta azken 5 orduak,



BESTELAKOAK

11. WIFI sareak ezartzea Irurtzungo, Lakuntzako, Etxarri Aranazko eta Altsasuko merkataritza guneetan. Aurrekontua: 12.705 euro.

12. Merkataritza-jarduera handiena duten udalerrietako sarbideetan (Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz eta Altsasu) eta Altsasuko merkataritza gunean dauden establezimenduei eta merkataritza eskaintzari buruzko seinale integratuak jartzea. Aurrekontua: 11.586 euro.

2. Sakanako merkataritza sustatzeko eta dinamizatzeko kanpaina bat diseinatu eta gauzatu sare sozialetan, SakanaAPPn eta Sakanako Gida webgunean. Aurrekontua: 6.050 euro.

3. Sakanako merkataritzaren publizitate, komunikazio eta ikusgarritasun ekintzak diseinatzea eta abian jarriko dira. Horrekin batera, eskualdeko eta erregioko komunikabide digitaletan, sare sozialetan eta beste euskarri digital batzuetan aurreko egin beharreko kanpainak ere martxan jarriko dituzte. Aurrekontua: 11.797,5 euro.

4. Ibilgailuak eta pertsonak zenbatzeko sistema ezartzea Altsasuko merkataritza eremuan. Aurrekontua: 12.100 euro.

6. Sakanako hainbat herritako merkataritza gunetako lokal hutsak eta zaindu gabeak daude. Ekintza horren bidez horiek identifikatu, kudeatu eta horien kanpoaldeak hobetu nahi da, beti ere, merkataritza gunen itxura hobetzeko eta erakargarritasuna handitzeko, eta merkataritza gunen mobilizatzeko eta zirkulazioan jartzea eragiteko, negozio berriak abian jar daitezkeen sustatzeko. Aurrekontua: 61.170,1 euro.

saltokiak bisitatuko dira. Bisita horien bidez materialen banaketa egingen da eta zati organikoaren bereizketan parte hartzeko eta beste frakzio batzuen bereizketa hobetzeko jarraitu beharreko prozedura azalduko da, baita hondakinen prebentzioa helburu duten ekintzak ere. Ondoren, jarraipena egingo da. Aurrekontua: 44.573,59 euro.

berriz, dendan bertan jasotako tutoretzaren bidez, proposatutako plana ezartzeko eta metodologia azaltzeko. Aurrekontua:

Bigarren ikastaroa merkataritzaren kudeaketa hobetzea (ekonomikoa, stocka eta abar) du helburu. Hamar saltokirendako tokia izanen da. Ikastaroan tresna teknologikoak ezagutu, datuak modu adimentsuan eta erabilgarrian erabiltzen ikasi eta metodologiak ateratzen ikasiko dute. 10 orduko iraupena izanen du eta haietatik 4 ikasgelan izanen dira, kontabilitateari eta zergei buruzko prestakuntza eta izapideak errazteko tresnak ezagutzeko. Gainontzeko 6 orduak

establezimenduei tutoretza pertsonalizatua emateko izanen dira, negozioaren errentagarritasunaren hobekuntza zehatzetan. Aurrekontua: 27.830 euro.

10. Txikizkako merkataritza sentsibilizatzea hondakinak murrizteari, berrerabiltzeari eta ekonomia zirkularrari buruz. Aurrekontua: 3.025 euro.

13. Totem digitalak jartzea Altsasun, Lakuntzan eta Irurtzunen, herritarrentzat interesgarriak diren informazioa eta merkataritza iragarkiak zabaltzeko. Aurrekontua: 33.000 euro.

KINTOAK

Kintoek bi egunetan eskatuko dute dirua

ALTSASU Etzi kinto eskea eginen dute. Astelehen goizean ikastetxe eta lantegietarako bidean egonen dira eskean.

Santa Ageda eguna domeka da aurten, eta kinto altsasuarrak 06:30ean gosaltzera elkartuko dira. Eta indarrak hartuta kinto eskeari ekinen diote. Ohi bezala, kinto buruzagiek 09:00 aldera alkatearen eskutik aginte maki-la hartuko dute eta orduan hasiko dira batera eta bestera joaten opilak saltzera. Kinto bakoitzak banasalduko du. Txistulariak lagun, opila erosten dutenei dantza saioa eskainiko diete. Aukera hori baliatzen du altsasuar batek baino gehiagok urteko aurreneko dantza pausoak egiteko. 56 gazteren bost eguneko ospakizunak ordaintzeko dirua behar denez, astelehen goizean ere kinto eskean ariko dira. Dirua asto batek eramaten dituen zaku batean gordetzen dute. Bi egunetan ibiliko dira, beraz, harekin aurrera eta atzera. Sos guztiak astelehenean bankura eramanen dituzte, kontatzeko.

Asier Solis Alen kinto buruzagiak esan digunez orain arte "nahiko lanpetuta" ibili dira os-

pakizunaren prestaketekin. Batekin eta bestearekin "dena antolatzen" ibili direla azaldu du Nahia Imaz Perezek kinto buruzagiak. Gainontzeko kintoei "festa nolakoa izanen den azaltzea" ere tokatu zaie buruzagiei. Imazek dagoeneko ospakizuneko jantziak prest dituen bitartean, Solis "azken momentuan gauza guztiak erosten. Lortu ditugu gauza gehienak". Kinto ospakizuneko oroigarri gisa argazki sesioa egitea ere bada ohitura. "Baina jendeak egin ditu. Nik aste honetan dena bukatuko dut". Imazek, berriz, "azterketekin denborarik ez" duenez, ospakizunaren ondoren eginen ditu. Entseguetan, bat eta beste, ikasteko moldatzen dela ziurtatu du.

Dantzak eta beste

Zortzikoa, jota eta porrusalda ikastera elkartu dira Burunda frontoian astegun guztietan 21:00etan. Gaur dute azken entsegua. Hainbat ikusleren aurrean dantzan trebatzen ari dira.



OLATZAGUTIA Ospakizunak hasten kinto goiztiarrenak olaztiarrak izan dira. Dagoeneko bi festa egun izan dituzte eta aurretik beste hiru dituzte. Guztietan kinto eskeak eginen dituzte. Itxabela txarangak eta etxajuen soinuek adierazten dute kinto segizioa nondik dabilen. Domekan herriko gazteenari, helduenari, alkateari eta aurreko medikuari opil bana oparituko diete. Gainera, larunbatean, gainontzeko kintadak batuko dira festara.

Solisen iritziz, "ongi, kinto guztiak nahikoa gogorekin etorri gara. Lehen astetik dantzarena ongi hartu dugu. Entseguetan azkar goaz". Kinto buruzagien zozketan aurrenekoa atera zena Imaz izan zenez, bera izanen da domekan zortzikoa dantzatuko duen aurreneko kintoa. Eta bere ondoren Solisek. Egun horretan, aurtengo kintoez aparte duela 25 urteko kintoek eta 60 urte betetzen dituztenek ere dantzatuko dute. Domekan, beraz, aurtengo kinto gutxiagok dantzatuko dute. Astelehenean, ostegunean, ostiralean eta larunbatean, zortzina izanen dira. 18:30 aldera hasiko dira dantzan. Azken egunean ordu erdi beranduago.

Ospakizuna iritsi bitartean, elkar ezagutzeko, urte hasieratik larunbat gauero elkartu dira kintoak. "Elkar hobe ezagutzeko balio du" esan du Imazek, Solisek gaineratu duenez, "gustura pasatu dugu". Bihar ez dute halakorik eginen, "fresko ibili behar baikara". Bestela, ospakizun egunetan luze egoteko Arkangoa, Haritza, Gautxori eta Xume tabernak hartu dituzte.



OLATZAGUTIA Baserritar jantziak soinean, 2004an jaiotako hamahiru gazteak dira Olatzagutiko kinto ospakizuneko protagonistak.

OLATZAGUTIA

OTSAILAK 3 Ostirala
23:00 Kontzertuak, Maisuenea gaztetxean.

Santa Ageda ospakizunaren harira, Los de abajo eta Ostikoka taldeen kontzertuak.

OTSAILAK 4 Larunbata
23:00 Kontzertua, Maisuenea gaztetxean.

Santa Ageda ospakizunaren harira, Bidean erromeria taldearen kontzertua.



Altsasuko kintoak zortzikoaren entseguan.

IHOTEAK

IHABAR

OTSAILAK 4 Larunbata

11:00 Puskabiltza.

18:00 Moxorroek puska biltza eginen dute.

22:00 Pikoteoa eta dantzaldia.

OTSAILAK 5 Igandea

18:00 Inauteriaren antzezpena:

Moxorroak, Landarra eta haren besoetan Ninia (zapi batean bildutako egur puska), Aitezarko eta Hartzta txistulariekin herrian barnako kalejiran familiaren pasadizoa eginen dute. Moxorroek erratza eskuan

mozorroturik ez daudenak zikinduko dituzte eta Landarra oihuka eta negar batean erreguka ariko da Aitezarko zigortu ez dezaten eskatzen. Baina kalejiraren amaieran, plazan, Aitezarko sutara zigortuko dute eta inguruan lhabarko zortzikoa dantzatuko dute.

Ondoren, txistorrada eginen dute.

ETXARRI ARANATZ

OTSAILAK 9 Osteguna

ANDREKUNDE

19:00 Kintoak txatarrez jantzita kalez kale ariko dira.



Ihabarko ihoteak. ARTXIBOA

SANTA AGEDA

IRURTZUN

OTSAILAK 4 Larunbata

18:00 Santa Ageda korua, Aizpeak antolatuta, Foru plazan.

IRAÑETA

OTSAILAK 4 Larunbata

18:30 Herritarrek plazan bilduko dira eta herriari buelta emanen diote, txoko berezietan geldialdia egiten. Kantuak amaituta afari-merienda eginen dute, Txapel Azpi elkartean.

LAKUNTZA

OTSAILAK 4 Larunbata

17:00 Lakuntzako eskolako eta ikastolako haurrak plazan bilduko dira. Herriari buelta emanen diote Santa Ageda koplak kantatuz eta eskean. Herritarrek emandako jaki eta diruarekin gurasoek eta boluntarioek prestatutako merendua eginen dute, kultur etxean.

19:00 Lakuntzako abesbatzako kideak plazan biltzen dira eta Santa Ageda koplak kalez kale kantatzen dituzte. Herritarrek emandako arrautza, puska eta edariekin afaria eginen dute, Lakuntzako Pertza elkartean.

LIZARRAGABENGOA

OTSAILAK 4 Larunbata

Iluntzean Santa Ageda koplak kantatzera aterako dira, plazatik.

ETXARRI ARANATZ

OTSAILAK 4 Larunbata

18:00 Musika eskolako ikasleek



ARTXIBOA

Santa Ageda kalejira eginen dute, musika eskolatik. Ondoren, txokolatada eginen dute, plazan.

ITURMENDI

OTSAILAK 4 Larunbata

12:00 Kinto gazteak, kintoak eta kinto zaharrak abestera aterako dira, gosaldur ondoren, plazatik. Etxez etxe abesten duten bitartean, herritarrei kintoendako borondatea eskatzen dute. Haiekin Amaiur Rubio, Idoia Rubio eta Igone Olmos trikitalariak ariko dira. Kintoek bonboa eramaten dute ere eta kintoen artean eskuz esku pasatzen dute zarata egiten, jendea ateraraziz. Lortutako dirua kintoen ospakizunendako da.

ALTSASU

OTSAILAK 4 Larunbata

13:00 Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako fanfarreak eta koruak Santa Ageda kalejira eginen dute, musika eta dantza eskolatik. 19:00 Lagun Onak elkartekoak Santa Ageda koplak kantatuko dituzte. Idoia Granizok sortutako koplak abestuko dituzte ere, Lagun Onak elkartetik. 19:30 Kukuerreka elkarteko kantu taldeak Santa Ageda koplak kantatuko ditu, Kukuerreka elkartetik abiatuta.

OLATZAGUTIA

OTSAILAK 4 Larunbata

13:00 KINTOEK eta eskolako haurrek elkarrekin kantatuko dute, plazan.

Mondragon Unibertsitatea
Gol Eskola Politeknikoa

ATEKIAK

Goierri Campusa

ORDIZIA

INGENIARITZA MEKANIKOKO GRADUA

Otsailak 8, 18:00

Eman izena

www.mondragon.edu/ate-irekiak

*Denon artean
hobe!*

*Proiektuan
parte hartu
nahi duzu?*

www.guaixe.eus/harpidetza

Alargun bati pentsioa handitzeko proposamena

Lan Ikuskaritzak proposatu du amiantoaren eraginez hildako Sunsundegui langile baten emazteari %50ean handitzea alargun pentsioa. ELAk amiantoaren Biktimen Konpentsazio Funttsaren Erregelamendua behin betiko onartzea exijitu du

ALTSASU

Lan Osasunerako ELAren fundazioak, Bidelagunek, jakinarazi duenez, Lan Ikuskaritzak bere demanda bat onartu du eta, ondorioz, "proposatu du Altsasuko Sunsundegui enpresak amiantoaren ondorioz hildako langile baten alargunari %50 handitzea prestazioa, hau da, maila gorenean". Langilea amiantoak eragindako pleura-mesotelioma baten ondorioz hil zen. Bidelagunek "oso positibotzat jo du" proposamena, "lor zitekeen erre-kargurik handiena baita".

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak egindako txostenaren arabera, Sunsundegui barrutik amiantoz estalita zeuden tren bagoiak eraberritu ziren 1982tik 1990era. Fundaziotik azaldu dutenez, "txosten hori oinarri hartuta, Lan Ikuskaritzak ondorioztatu du amiantoaren aurkako segurtasun neurririk gabe jardun zutela langileek enpresan, eta



Sunsundegui lantegia. ARTXIBOA

horregatik proposatu du erre-kargu hori. Orain, Gizarte Segurantzak egin behar du azken pausoa dagokion erre-kargua alargunari aplikatzeko".

Bidelagun fundazioak eta ELAk gogorarazi dutenez, "amiantoa-

ren ondoriozko gaixotasun profesionalak gero eta ugariagoak dira, ia dimensio pandemikoarekin. Hori guztia kontrol publiko nahikorik ez dagoelako eta enpresek segurtasun neurri gehiago hartu ez zituztelako XX. mendean". Bestetik, gogorarazi dute amiantoak eragindako gaitzen patologia, "ia guztiak minbizia sortzen dutenak", 30 urte ingurura agertzen direla. Horregatik, bai fundaziotik bai sindikatutik adierazi dute "ikusezin bihurtzeko eta lan giroarekin ez lotzeko joera duen fenomeno baten aurrean" gaudela. Aldi berean, erakunde publikoei eskatu diete "langile klasearen osasun eskubidea benetan bermatzeko behar adina baliabide esle" ditzatela. Zehazki eskatu dute amiantoaren Biktimen Konpentsazio Funttsaren Erregelamendua behin betiko onartzea, "kaltetutako langileak eta haien senideak babesteko eta dagozkien kalte ordainak kobratzeko".

Pediatrarik ez dago ibarreko bi osasun eskualdetan

Etxarri Aranazkoan eta Altsasukoan ez dago haur eta gaztetxoak artatuko duen profesionalik

SAKANA

Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformak asteazkenean jakinarazi zuenez, Etxarri Aranazko eta Altsasuko osasun eskualdeetan ez dago pediatrarik. Haien ordez Osasunbideak erizainak jarri ditu, baina Iruñeko San Martin osasun etxera edo larrialdietara bideratzea beste erremediorik ez dutela azaldu zuten plataformakoek. Horregatik, Osasun Departamentuari kexa azaltzeko eskatu zuten.

Bestalde, azken bi asteetan Burunda mendebaldeko osasun



Osasun etxeak zaintzea eskatzen.

eskualdean bost mediku egon dira. "Egoera kopuru horretan egonkortu bada ere, plantilla ez dago osorik, mediku bat falta da. Egoera egokia ez denez aldarrikatzen segi behar dugu". Bestetik, jakinarazi zuten antzeko egoera bizi zuten Bortzirietako plataformarekin bilera egin behar zutela atzo. "Iritziak trukatu eta indarrak metatzeko helburuz goaz", esan zuten.

Azkenik, Nafarroako Osasun Plataformak Iruñeko Conde Oliveto eraikinaren parean larunbatean, otsailak 4, 11:00etan, deitu duen kontzentrazioan parte hartzea deitu zuten. Nafarroako Sindikatu Medikoak kentzea eskatu duen sendagileen eskusibitatea mantentzea eskatzearekin batera, osasun zerbitzuaren pribatizazioaren kontra eginen da bilkuran.



Altsasuko azken bi bilkuretan eskusibitatearen alde egin dute.

Medikuen greba deialdiak apenas izan du oihartzunik

Plantillan dagoen batek eta astean behin etortzen den beste batek egin dute greba

SAKANA

Ibarreko hiru osasun eskualdeetan, gauzak ongi, 13 mediku egon beharko lukete. Burunda mendebaldeko osasun eremuan bat falta denez, dozena bat mediku izan ditugu aste honetan Sakanan. Haietatik bakarrak bat egin du Nafarroako Sindikatu Medikoak egindako greba deialdiarekin. Ibarreko astean behin etortzen den beste mediku batek ere lan uztea egin du. Gainontzeko sendagileek, ohi bezala, kontsulta pasa dute.

Nafarroako Sindikatu Medikoak hainbat eskaera egin dizkio Osa-

sun Departamentuari. Batetik, eskatu du erabateko eskusibitatearen alde egin dute greba

sendagileendako, eta ez gobernua proposatutako batezintasuna. Ondorioz, medikuek sare publikoaren soldata osagarria kobratu eta, aldi berean, sare pribatuan aritzeko aukera lukete. Aparte, aurten soldata igoera hilean 500 eurokoa izatea exijitu dute, baita 2024. urtean beste 500 euro igotzeko konpromiso parlamentarioa ere.

Gehiago sindikatuek hilaren 15erako deitu dute greba. Eta erizainen Satse sindikatuak, berriz, 18rako.

DUELA 25 URTE...



Euskaraokea saioaren grabazioa

ETBren kamerak Altsasura etorri ziren 20 partaide sakandarren Euskaraokea saiorako emanaldiak grabatzera. Haurren maila oso ona izan zen, eta karaoke eta dantzaok mailetan finalista bakarra beharrean bina aukeratu zituzten epaileek. Amaia Artieda Estanga eta Naike Castillo Ubierna batetik eta Sagrado Corazon ikasketeko Boom Shake eta Andra Mari ikastolako laukote bat. Laurak Miramonen jokatu ziren aurre finaleran izan ziren eta Boom Shake taldea finalerako sailkatu zen.

Emakumezkoen Ados Txapelketa, Altsasura

PILOTA Ados pilota klubak Berriaren laguntzaz antolatutako Emakumezkoen Binakako Pilota Txapelketako jardunaldia hartuko du Altsasuko Burunda pilotalekuak gaur, ostirala, 19:00etan

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

2022an sortu zen Ados, emakume pilotarien lehen klub profesionala. Kluba eratzearekin mugari bat ezarri zuten emakume pilotarietara. Kluba hiru helburuarekin sortu zuten: txapelketa gehiago jokatzeko, euren lan baldintzak hobetzea eta euren buruaren jabe izatea.

Ados klubak antolatutako Binakako Txapelketa martxan da. Berria egunkaria da babesle nagusia. Abenduaren 13an aurkeztu zuten Zumarragan, eta ordutik Beran, Latasan, Sunbilla, Etxebarrin, Zegaman, Lizarran, Lizartzan, Azkoitia, Otxandion, Leitza, Agurainen eta Etxebarrian izan da. Otsailaren 3an Altsasura helduko da. Jaialdia 19:00etan hasiko da eta sarrera 5 eurokoa izango da.

Emakumezkoen pilotari onenak lanean ikusteko aukera izango da Altsasun. Bi partida jokatu dira. Batetik, Etxebestek eta Capellanek Etxekolonea eta Mujika



Ilbeltzean Adosek antolatutako Binakako Pilota Txapelketan jokatuak partida. ERRAN

izango dituzte arerio, eta, bestetik, Ruiz de Infantek eta Orbegozok Zabaleta eta Agirre.

Momentuz txapelketa orekatua ari da izaten, baina eliteetan Maddi Barrocal eta Olatz Ruiz de Larramendi koska bat gorago

daude, jokatu dituzten bost partidak irabazi dituztelako. Nolanahi ere, hasierako ligaxkan asko dago erabakitzeke, final laurdenetara eta final erdietara sailkatzea baitago jokoan. Altsasuko jardunaldiak asko du esateko.

Ezkurdia eta Martija, oso behartuta

Binakako Txapelketan hamaikagarren jardunaldia dago jokoan. Ezkurdiak eta Martijak ongi jokatu zuten azken jardunaldian Altunaren eta Tolosaren kontra, baina ezin izan zuten garaipena lortu, eta bi punturekin, Binakako finalerdietarako play-offetarako sailkatzea oso zaila dute. Lehenik eta behin otsailaren 3an, ostirala, Urrutikoetxearen eta Albisuren kontra Amorebietan jokatu beharreko partida irabazi beharra dute, bai hala bai. Bestela ia aukerarik gabe geratuko dira, geratzen diren lau jardunaldietatik hiru irabazi beharrean baitaude, eta gainontzekoen emaitzen zain geratu.

Elordi eta Zabaleta liderren egoera bestelakoa da, erabat. Jokatuak hamar partidetatik bederatzirabazi dituzte, eta gainontzekoak baino koska bat gorago daude. Otsailaren 4an Peña eta Mariezkurrena dituzte aurkari Idiazabalen.

"Gure egoera kritikoa zen denboraldia hasi aurretik"

IMANOL ARREGI OSASUNA MAGNAKO ENTRENATZAILEA ARETO FUTBOLA Lehen Mailari eustea da helburu nagusia

IRURTZUN

Ilbeltzaren 27an Areta Futboleko Lehen Mailako hemezortzigarren jardunaldian Osasuna Magna Xotak sailkapenean azkena zen Manzanarese taldearen kontra 2 eta 3 galdu egin zuen azken segundotan gertatutako zorigaiztoko jokaldi batean. Talde irurtzundarraren egoera ez da bate-re gozoa. Lehen Mailako ligan hamalagarren postuan dago (15 puntu), jaitsiera postuetatik puntu bakarrera. Imanol Arregi entrenatzailea egoera kritikoa argi eta garbi mintzatu da.

Manzanarese kontra azken segundotan eta modu horretan galdu izanari azalpenik aurkitzen al diozu? Ez. Bigarren zatiko 7 minutuetan izan ezik, gu hobeak izan ginen. Markagailuan aurreratzeko aukera gehiago izan genituen, baina aurreratu ginenean gure defentsa kainuz gairitu zuten, ez ginen atera iritsi eta berdindu ziguten. Hortik aurrera ere gola sartzeko aukerak izan genituen, baina ezin. Gure artean hitz egin genuen, pazientziarekin hartu beharra genuela, eta 5 eta 3-ko jokoan estrategia jokaldi batean



Imanol Arregi. XOTA

gola sartu beharra genuela. Baina, zoritxarrez, izkinako sake bateko alderatzean eurek lortu zuten baloia, eta nahiz eta gure atezainak euren jaurtiketa gelditu, alderatzean baloia Manzanareseko jokalariren baten hankara

joan zen eta gola sartu ziguten, azken segundotan.

Sinestezina. Jokalariei argibiderik eskatuko diezu?

Besterik gabe, 5 eta 3-ko jokoan halakorik ezin dela gertatu. Partida alde jarri zitzaigun, 2 eta 1 geundelako aurretik, baina ez dugu partida ongi irakurtzen jakin. Guretzako partida gakoa zen, euredako bezala, eta argi genuen nola edo ahala irabazi beharra genuela. Tamalez, ez genuen asmatu. Beste behin, huts egin ezin diren jokaldiak huts egin genituen. Errepikatzen den egoera da.

Egoera kritikoa da.

Gure egoera kritikoa zen denboraldia hasi aurretik, eta orain askoz ere gehiago. Borrokatzea, ez dago besterik. Inter Movistar dugu aurkari eta dena eman beharra dugu.

FUTBOL PREFERENTEA

18. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Aibarés - Altsasu	1-1
Etxarri Aranatz - Aurrera	0-2
Amigó - Lagun Artea	3-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Universidad de Navarra	41
8	Altsasu	26
17	Etxarri Aranatz	10
18	Lagun Artea	5

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAK 4, LARUNBATA

16:15	Altsasu - Amigó (<i>Dantzaleku</i>)
16:15	Beti Casedano - Etxarri (<i>La Laca</i>)

OTSAILAK 5, IGANDEA

16:00	Lagun Artea - Beriain (<i>Zelai Berr</i>)
-------	---

Altsasuk Amigó hartuko du

Oibarren puntu garrantzitsua lortuta, sailkapenean bigarren den Amigó hartuko du Altsasuk. Partida zaila du aurretik.

Etxarrik arerio gogorra du

Aurreraren kontra etxean galdu eta gero, arerio latza du Etxarrik, hirugarrena den Beti Casedano. Ea sorpresa ematen duen.

Lagun Arteak Beriain hartuko du

Azken postuan jarraitzen du Lagun Arteak. Arerio zuzena den Beriain taldearen kontra ea garaipena lortzen duen, aspaldiko partez.

EMAKUME PREFERENTEA

13. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Berriozar - Altsasu	3-1

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA

1	Idoya	35
7	Altsasu	13

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAK 5, IGANDEA

12:15	Gazte Berriak - Altsasu (<i>Antsoain</i>)
-------	---

Altsasuk Gazte Berriak aurkari

Azkeneko bi porrotak ahaztuta, hiru puntuen bila zelairatuko da Altsasu.

FUTBOL ERREGIONALA

16. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Gazte Berriak - Altsasu B	2-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	Beti Onak B	42
12	Altsasu B	12

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAK 5, IGANDEA

16:00	Altsasu B - V. Aranguren (<i>Dantzaleku</i>)
-------	--

Altsasuk Aranguren hartuko du

Altsasuk arerio zuzena duen Valle de Arangurenaren kontra garaipena nahi du.

Mendieta, talde berria eta Nafarroako txapelduna

ATLETISMOA Nafarroako Pista Estaliko Txapelketetan Ruben Mendieta olaztiarrak Atletismo Albacete talde berriarekin primeran debutatu zuen, 800 metroan gailenduz. Hiru Herriko Israel Arbizu etxarriarra 3.000 metroko txapeldunordea izan zen

Maidier Betelu Ganboa SAKANA Larunbatean, ilbeltzak 28, Nafarroako Pista Estaliko Atletismo Txapelketa jokatu zen atleta nafarren bilgune izan zen Donostiako Antonio Elorza belodromoan. Atletak lasterketa eder eta borrokatuak eskaini zituzten, errekorrak izan ziren eta banatu ziren dominen artean bi iritsi ziren Sakanara.

Ruben Mendieta Alegria korrikalari olaztiarrak urrezko domina lortu zuen 800 metroko gizonen lasterketan. 2023 urtean talde berriarekin hasi da lanean olaztiarra, Atletismo Albacetearekin, eta hasiera ezin hobea izan du taldean. "Orain arte Grupompleo Pamplona Atletico taldean aritu naiz, baina Atletismo Albaceteren proposamena, kategoriaz igotzeko taldea indartzearena, polita iruditu zitzaidan eta animatu nintzen, helburu berriak izateko eta giroz aldatzeko. Ea zer moduz doakidan" dio irribarrez.

Mendieta, 48 ehunekoengatik Gizonen 800 metroko lasterketa ehuneko gutxi batzuen gatik erabaki zen. Borroka oso estua izan zuten Ruben Mendieta eta Hiru Herri klubeko Mikel Calvo Romok. "Lasterketa irabazteko aukerak nituela sentitzen



Ruben Mendieta, txapeldunaren dominarekin. NAFARROAKO ATLETISMO FEDERAZIOA

nuen, entrenamendu onak egiten ari naizelako, baina banekien Mikel Cabo Valentzian oso ongi lehiatzen zitorrela eta sasotsu zegoela. Lasterketa mantso abiatu zen eta hori niretako eta Mikelendako ez da egokia, biak jokalaririk nahiko azkarrak garelako, baina lasterketan eroso ikusi nuen nire burua; erraza egiten zitzaidan" dio Mendieta.

Lehen 400 metroek ez zuten bigarren 400 metroekin zerikusirik izan. "Lehen 400 metroetan ez nintzen nekatu; helmugarako 300 metroren faltan eritimoa

aldatu, buruan jarri eta taldea tiratzen hasi nintzen, baina 100 metroren faltan Mikelek gainditu ninduen. 20 metroren faltan Mikel aurreratzea lortu nuen eta hortik aurrera lehia bizia izan genuen biok. Zorionez, ni sartu nintzen aurretik". Mendieta 1:54.36 denboran osatu zituen 800 metroak, eta Mikel Calvo 1:54.84-an. 48 ehuneko alde eskasak erabaki zuen.

Gizonen 800 metroko txapelduna da Ruben Mendieta. "Lasterketa indartsu eta ongi bukatu nuen. Pozik nago, nahiz

eta marka ona ez izan. Izan ere, lehen 400 metroan mantso joan ginen, eta nabaritu zen. Hortaz, guztia kontuan hartuta, kontentua" dio. Asteburuan Madrilen lehiatuko da. "800 metroan lehiatuko naiz eta nire marka pertsonala (1:53.05) jaisten saiatuko naiz. Aurrera begira, pista estaliko denboraldia bukatu eta aire zabalekoa prestatzen hasiko naiz".

Arbizu, zilarrezkoa

Nafarroako Pista Estaliko Txapelketetako bigarren domina sakandarra Israel Arbizu Alberto korrikalari etxarriarrak eka- rri zuen. Gizonen 3.000 metroko lasterketan bigarren sailkatu zen Hiru Herri klubeko korrikalaria (8:55.65), bere taldekide Javier Magaña Mondejarretik segundo batera (8:54.27). "Elkarrekin entrenatzen dugu biok, Hiru Herriko taldean. Ni oso pozik nago bigarrena izateagatik, baina hurrengo egunean Espainiako Kros Txapelketa jokatu zen Ortuellan, eta nabaritu zen. Distantzia horretan, 3.000 metroetan ni baino hobe aritzen diren korrikalariak falta ziren. Hala ere, bigarren sailkatu nintzen eta oso kontentua nago. Gainera, sentsazio oso onak izan nituen, nire marka pertsonaletik lau segundora geratu nintzelako.

Arbizuk gogor jarraituko du entrenatzen. "Otsailaren 25ean Nafarroako Distantzia Motzeko Kros Txapelketa jokatu da Altsasun, eta bertan lehiatuko naiz. Bestalde, pista estaliko denboraldia bukatuta aire zabalekoa hasiko da eta ongi prestatu nahi dut. Aire zabaleko pistan, udan, 1.500 m eta 5.000 m distantzian ongi ibili nahi dut, eta horretarako prestatuko naiz aurten bereziki, Nafarroako Txapelketan ongi aritzeko.

Sakanako atleten asteburua



Denboraldia mustutzen. UTZITAKOIA

June Kintanaren lehena


Disko jaurtitzaila bakaikuarrak 2023ko denboraldia Aragoi mustu zuen. Kintanak 52,47 metrora jaurti zuen diskoa eta txantxa egin zuen Sare Sozialetan, denboraldia "marraskilo baten antzera" hasi duela adieraziz.



Altsasuarra Larran. PABLO ROA

Josean Salgado Larran

Ilbeltzaren 28an Larra Belagua Snowrunning jokatu zen, Nafarroako Elurretako Lasterketa Txapelketa. Xabier Zarranz (52:14) eta Naiara Irigoien (1:02:20) gailendu ziren, eta Josean Salgado 58. sailkatu zen (1:25:46).



Dantzalekuko lau altsasuarra.

Idiazabalgo Top-30ean

Igandean 540 korrikalari osatu zuten 42. Idiazabalgo Herri Krosa. Top-30ean boset sakandarra sailkatu ziren: Eukeni Goikoetxea 8. iritsi zen, Jabi Gasanz 9., Aritz Etxeberria 16., Sergio Garcia Eulate 17. eta Raul Audikana 28.

Beunza Ortuellan

ATLETISMOA Igandean Espainiako Kros Txapelketa jokatu zen Ortuellan. Estatuko espezialista onenak lehiatu ziren lokaztutako zirkuituan. Emakumezkoetan, Euskadiko selekzioko Majida Maayouf (35:12) izan zen azkarrena, ikusgarri. Izaskun Beunza olaztiarra 60. sailkatu zen (41:38). Gizonetan, Thierry Ndikumwenayo valentziarra gailendu zen (30:25).



ESPAINIAKO ATLETISMO FEDERAZIOA - MIGUELEZ TEAM

Bizi guztia pilotari emana

PILOTA Pablo Lopez de Goikoetxea Sueskunek 50 urte pasa daramatza pilota sustatzen. Altsasu Kirol Elkarteke pilota arduradun, Nafarroako Pilota Federazioko hautatzaile eta material arduradun izana da. Abenduan omendu zuten Lekunberrin

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
Pilota Pablo Lopez de Goikoetxea bezainbat ezagutzen duen gutxi izango dira. Altsasuarrek 50 urte baino gehiago eman ditu pilota munduan lanean, Altsasu Kirol Elkartearen eta Nafarroako Pilota Federazioaren denetarikoa karguak beteaz. Nafarroako selekzioeko hautatzailea eta material arduraduna izana da. 18 urtetik 60 urtera arte Correoseko postari izandakoak aurten 81 urte beteko ditu. Nafarroako Gazteen Mailako Lau eta Erdia, Guillermo Mazo Memoriala, duela 25 urte sortu zuen eta bere ardura izaten jarraitzen du. Horregatik abenduaren 3an Lekunberrin omendu zuten.

Pablo Lopez de Goikoetxea pilotari lotutako gizona da, baina bera ez da sekula pilotaria izan. "Gehienez, puntura jokatzeko zuten, baina gutxi. Hori bai, txikitatik pilota partida guztietara joaten nintzen. Sekulako afizioa dut" aitortzen du. Horregatik jaso zuen 1968an Sociedad Deportiva Alsasua-Altsasu Kirol Elkarte sortu berriaren pilotaren ardura hartzeko deia. "Pilota sustatzea eskatu zidaten. 1968. urtean hasi nintzen, eta nahiz eta gaur egun kargurik ez izan -2011n utzi zion elkarteke pilota sekzioeko arduradun izateari eskatzen didatenean laguntzen diet" gaineratu du. Pilotan erreferente izaten jarraitzen du.

Altsasu Kirol Elkarte, sorrera
Altsasu Kirol Elkartearen pilota eskola sortu zuen. "Gure aurretik Peña Pelotazale Alsasuarrek jorratzen zuten pilotaren gaia Altsasun, baina batez ere pilota jaialdiak antolatzen zituzten, erremontekoak gehienbat. Altsasun erremontista gehiago atera ziren pilotariak baino.

Gure pilota eskolan 160 pilotari izatera heldu ginen. Pilotari onak atera ziren Altsasu Kirol Elkartetik" oroitzen du. Oinatz Bengoetxea leitzarra izan zen horietako bat. Espainiako Txapelketa jokatu zuen Altsasu Kirol Elkartearekin. "Seme baten moduan maite dut. Espainiako Jubenilen Txapelketara eramane nuen Nafarroako selekzioarekin eta Mundialetan ere parte hartu zuen. Bestalde, Koldo Mendiluze altsasuarra Pilotajauku eskolan trebatu zuen, baina Altsasu Kirol Elkartearekin ere jokatu zuen. Juantxo Apezetxea goizuetarra ere pilotari ona zen, gurean trebatua".

Pilotajauku
Altsasu Kirol Elkarteke pilota kluba martxan zela sortu zuen Pilotajauku pilota kluba. "Gorabeherak izan ziren. Gertatzen ari zena ez nuen gustuko, baina guztia zen pilota eta niretako pilota guztiaren gainetik dago. Horregatik hasieratik Pilotajaukurekin kolaboratu nuen. Pilotajaukuk pilota eskolaren ardura hartu zuen eta Altsasu Kirol Elkarteak Espainiako Txapelketan parte hartzen jarraitu zuen klub gisa, eta 1968tik antolatzen genuen afizionatuen Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoarekin jarraitu zuen". Pilotajaukuko eskola ongi hasi zela dio Lopez de Goikoetxea, baina gero jaitsiera izan zuen. "Haur gutxiagok ematen zuten izena, futbolaren eta beste kiro-

"1968AN ALTSASU KIROL ELKARTEAN PILOTA SUSTATZEKO DEITU NINDUTEN"
PABLO L. GOIKOETXEA

len eraginez izango zen. Gaur egun lan ona egiten ari dira Pilotajaukukoak, baina oso zaila da pilotak garai batean izandako indarra berreskuratzea. Urte askoko lana izango da".

Otadiko Kristo Deuna Torneoa
Altsasu Kirol Elkartearen sortu eta urte berean, 1968an Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoa antolatzen hasi ziren. "51 urte daramatzagu torneo antolatzen. Afizionatuen pilota txapelketarik entzutetsuenetako bat izan zen". Gaur egun Altsasu Kirol Elkarteak eta Pilotajaukuk antolatzen dute elkarlanean, eta finalerdiak eta finala egiten dira. Azken edizioa, 2022koa, Pablo Lopez de Goikoetxea berak antolatu zuen, bi klubek hala eskatuta. "Gaur egun garai batean baino txapelketa gehiago jokatzeko dira aldi berean, tartean Donostiako Antiguoko Txapelketa, eta batzuetan zaila izaten da nahi dituzun pilotariak lortzea, edo azken uneko aldaketak egin behar izaten dira. Aurten Oberenaren jokatzeko duen Iosu Igoa etxarriarra eta Anton Apezetxea goizuetarra ekarri nahi nituen, baina ezin, Antiguokon jokatu behar zutelako. Beraiek izan ziren txapeldunak. Azken orduko arazoekin ez ibiltzeko aurten 23 urtez azpira mugatu genuen Otadiko Kristo Deuna Torneoa, eta uste dut oso torneo polita atera zela. Pilotakada ugari gurrutzatu ziren, kalitate handiko jokaldiak eta gosez datozen gazteak ikusi genituen. Pilotazaleak kontentuz geratu ziren" dio Lopez de Goikoetxea.

Nobedade gisa, aurten neska eta mutilen osatutako bikote mistoen partidak antolatu zituen lehenengoz. Nafarroako pilota selekzioeko hautatzailearekin



Pablo Lopez de Goikoetxea Sueskun horrenbeste ordu sartu dituen Altsasuko Burunda pilotalekua

harreman estua du, urtero Iscarren (Valladolid) jokatzeko den Espainiako Eskolarteko Pilota Txapelketara joaten baita Lopez de Goikoetxea. Hautatzaileari eta neska pilotariari aipatu zion ideia "eta haiek baietz. Pilotajaukuko mutilekin bikote orekatuak egiten saiatu ginen, eta ongi atera zen, pilotazaleei gustatu zitzaizkien. Esan didate nesken eta mutilen maila parekatzeko aukera bikaina dela partida mistoak egitea".

Nafarroako Pilota Federazioan
Altsasu Kirol Elkartearen jarraitzearekin batera, Nafarroako Pilota Federazioko junta sartu zuen altsasuarra, 1980. urte inguruan. "Orduko federazioko presidente Jose Mari Kareagak hots egin zidan, Altsasuko aurreko delegatu Josetxo Yeregiren tokia hartuko ote nuen. Jesus Reclusarekin, Lekunberriko Guiller-

"50 URTE HAUETAN POZ HANDIAK EMAN DIZKIT PILOTA, ETA LAGUN ASKO"
PABLO L. GOIKOETXEA

mo Mazorekin eta bestelakoekin hasi nintzen junta. 30 urte inguru egon nintzen, eta denetarik egin izan dut: esku pilotako delegatua, Nafarroako Selektzioeko hautatzailea, material arduraduna..." oroitzen du. Orduetik federazioko presidente guztiekin egin du lan. Miguel Pozuetak presidente izateari utzi zionean, Nafarroako Gobernuo Kirol Institutuko kudeatzaile izateko, Ramon Martinezek hartu zuen bere kargua, eta azkeneko hauteskundeetan federazioa utzi zuen Lopez de Goikoetxea. "Javier Condek, egungo presidenteak, galdetu zidan ea zein asmo nituen. Eta nik esan nion junta utziko nuela baina Nafarroako Gazteen Lau eta Erdia, Guillermo Mazo Memoriala, antolatzen jarraituko nuela. Baiezkoa jasota, gaur egun txapelketa antolatzen dut eta Iscarren jokatzeko den Espainiako Eskola Arteko Txapelketarako egonaldia kudeatu eta bertara joaten naiz txapelketak irauten duten 5 egunetan".

Mazo, lagunaren omenez
Guillermo Mazo Lekunberriko eskolako arduraduna eta Nafa-



n. Burundarekin konpromiso gehiago hartzea eskatzen dio Altsasuko Udalarari.

roako Pilota Federazioko juntakidea. "Lagun minak ginen. Bera ere materialaren maitale amorratua zen, ni bezala. Makina bat txapelketa antolatu genituen elkarrekin" oroitzen du. 1998 urtean federazioak lehenengo antolatutako Nafarroako Jubilenen Lau eta Erdiko Txapelketari bere izena jarri zioten, Guillermo Mazo urte horretan zendu zelako. Lopez de Goikoetxeak antolatzen du urtero txapelketa. "Astearteetan Etxarren go frontoian eta asteazkenetan Lekunberrikoan jokatzeko da, hemen inguruan egitea nahi dudalako eta materialaren arduraduna naizenez, hobeto kontrolatzeko. Finala abenduaren 3an jokatzeko da Labriten, baina Mazoren heriotzaren 25. urteurrena zenez, aurtengo finala Lekunberrin egin genuen".

Lopez de Goikoetxeak sorpresa hartu zuen Guillermo Mazoko finalean, Nafarroako Federazioak omenaldia egin baitzion, 25 urte hauetan guztietan txapelketa antolatu izanagatik. "Ez nekien ezer, sorpresa izan zen. Plaka eman zidaten. Oso eskertuta nago, halakoak politak izaten dira" dio.

Urrezkoa eta zilarrezkoa

Hori ez da altsasuarrak jasotako oroigarri bakarra. 1999. urtean Nafarroako Gobernuaren Kirol Merituaren zilarrezko domina jaso zuen; 2008an Nafarroako Pilota Federazioaren urrezko domina; 2011n Altsasu Kirol Elkartearen oroigarria; eta 2019an Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako oroigarria. "Harrotasuna da. Pilotaren munduan 50 urte egotea... ez dira ni bezalako asko egongo".

Halako ibilbidearekin, ezagun ugari. Altsasun partida profesionalak daudenean ere guztiak hurbiltzen zaizkio agurtzera, "gehienak ezagutzen ditudalako. Pentsa, Aspeko zuzendari komertzial Inaxio Errandonea, Otadiko Kristo Deunan jokatzeko ekarri nuen, eta Baikoko "Gorostiza" intendentea hemen izan nuen Bartzelonako Joko Olinpiarretarako entrenatzaera etortzen zenean. Eta pilotariak, ia guztiak ezagutzen ditut". Pablo Lopez de Goikoetxeak asko ematen dio pilotari, baina pilotak berari ere bai. "Poz handiak eman dizkit pilotak, eta lagun asko. Ahal dudan heinean, pilotan laguntzeko prest nago".

"Materialarekin beti egon da polemika"

PABLO LOPEZ DE GOIKOETXEA

Nafarroako Federazioko material arduraduna izan zara. Materialaren gaia polemikoa da.

Oso. Gai honekin ez da inor kontentu geratzen. Beti egon da polemika eta beti egongo da. Afizionatuetan profesioletan baino okerragoa izaten da. Federazioan nola hautatzen zenituzten pilotak?

Zenbait pilota egile zeuden, eta haiei erosten genizkien. Sestaoko Cipri pilota egileak zuen arrakasta gehiena. Gaur egun jada ez ditu pilotak egiten. Punpa etxekoak erabiltzen dira gehienbat. Maila profesionalean erabiltzen diren guztiak dira Punpakoak. Altsasu Kirol Elkartearen Sacristanen materiala asko erabiltzen nuen, Sestaon bizi zen artisau errioxarrarena, eta baita federazioan ere, bestelako egileekin batera. Gaur egun Punpa, Cervino artisau errioxarra eta materiala ongi lantzen ari den Ander Zulaika nafarra dira pilota egile nagusiak. Azken honek Punparen antzera lan egiten du.

Zeintzuk ziren Punparen eta Cipriren piloten arteko ezberdintasun nagusiak?

Cipriren materiala nahiko exigentea zen. Askoz ere gehiago kostatzen zen pilota haiek mugitzea. Pilota artisauagoak ziren. Punpan, aldiz, makinak erabiltzen dituzte. Kiskia, hau da, bolatxo txikitik hasten dira lanean. Motorren bidezko makineria bati esker hariz inguratzen dute kiskia, gero artilez, eta, azkenik larrua josten dute, azken hau eskuz. Cipriren pilota batek agian 50 euroko prezioa zuen, eta Punparenak 30 eurokoa. Nik Ciprirenak gustuko nituen, baina Punparenak atera zirenean ez nituen gaizki ikusi. Ezberdinak dira, baina prezioa baxuagoa izatea klubei ongi etorri zitzaion.

Zenbat irauten dute pilotek?

Nik materiala asko zaintzen dut. Guillermo Mazoko materiala nire ardura da. Partida baten ondoren Nivea ematen diet pilotari, larrua eta pilota garbitzeko. Gero gantza ematen diet, eta talko hautsak.

Horrela, pilotak partidaren galdu duen fintasun hori berreskuratzen da, zerbait. Larrua tenkatzen du, eta hori garrantzitsua da larrua ez atximurtzeko. Materiala zaintzea asko gustatzen zait, eta nahiko maniatikoa naiz. Pilotari bizi luzea ematen diet.

Materialaren inguruko kexa nagusiak zeintzuk dira? Azkarregiak edo motelegiak direla?

Halakoak. Federazioan material arduradun nintzela materialaren ibilbidea mugatu nuen. Maila nagusian, senior mailan, pilota batek hiru koadro baino gehiago ezin dituela korritu uste dut. Hala esan nien, federazioan ongi ikusi zuten, eta erregelamenduan jaso genuen. Pilota batek hiruan baino gehiagoan botea egiten badu, zazpita iristen da eta errebotea jotzen du. Piloten ibilbideari muga jarrita, behintzat, erretoa egitea ahalbideratzen da. Hura onartuta, gainontzeko kategorietako pilotak arautu genituen: jubenilak, infantilak, kimuak eta benjaminak. Federazioan zalaparta gehienak klub bakoitzak bere materiala aurkezten zuenean sortzen ziren, bakoitzak bere pilotari hobeto zegoiena aurkezten baitzuen.

Hori saihesteko, zer da egokiena?

Erdi mailako pilota bat ateratzea da egokiena. Epailerek klubek aurkezten dituzten pilota guztiak aztertu eta ibilbide luzeegia dituztenak kentzen dituzte. Hala ere, oraindik arazoak izaten dira. Berriki, Espainiako Kluben Arteko Txapelketan Uharteko Iruñea eta Oberena klubek hika-mika izan zuten, material batek araututakoa baino bote gehiago zuelako. Herrien Arteko Txapelketan erabiliko diren pilotak federazioak berak jarriko dituela erabaki da halakoak ekiditeko. Dena den, azkenaldi honetan ez dago polemika gehiegirik. Banago enpresak eta klubek euren pilotari esan dietela dagoenarekin jokatu behar dela, eta kitto.

Materialarena oso kontu delikatua da.

Oso. Otsailaren 12an jaialdi profesionala egongo da Altsasun. Ezkurdiak eta Martijak Jakaren eta Arangurenen kontra jokatu dute. Errandoneari esan nion otsailaren 7an egingo den material aukeraketarako frontoian berogailua jartzea eska dezatela, partida jokatzeko denegongo den antzeko tenperetarekin aukeratu behar baita materiala. Nabaritzen da. Niri pilotak 20 gradu inguruko tenperaturan mantentzea gustatzen zait.

Nola ikusten duzu pilota Nafarroan?

Pilotariak ateratzen dira; nik uste dut Nafarroan ongi gaudela. GRABNI txapelketan Nafarroak jarraitzen du txapelkun. Atzelariak ateratzea zailagoa da, hori bai. Afizionatuetan pilotari onak ditugu. Josu Igoa etxarriarra, Iker Espinal, Canabal, Aldave, Apeztexea, Irurtzeta klubeko Aingeru de La Fuente eta Adrian Azpiroz... Ikusten dudana da profesioletara pasatzea ez dela hain erraza.

Zuretako zeintzuk izan dira pilotari onenak?

Lehenegotatik, Julian Retegi. Olaizola eta Irujo ere oso gustuko nituen, eta baita Beloki ere. Egungo pilotarietan Jose Javier Zabaleta atzelari onena da; zaila da halakorik topatzea. Eta niretako aurrelari onena Jokin Altuna da. Angeluak bilatzen ikaragarria da; frontoiko toki guztietako angeluak bilatzen ditu: txokoan, zabaletan, txapa gainean eta atzean.

Eta frontoi bereziena?

Labrit pilotaren teatroa da. Ez du parekorik. Izugarri gustuko dut. Bitxikeria bat: Labrit frontoiko neurriak erabili ziren Altsasuko Burunda pilotalekua egiteko orduan. Burundan iaiz hobekuntza lan batzuk egin ziren, ez nahi genituen guztiak, baina lurzorua asko hobetu da. Hala ere, Altsasuko Udalarari eskatuko nioke Burundarekin konpromiso gehiago hartzeko. Jarleku batzuk askatuta daude eta argiztapena ere hobetu beharra dago, argiak atzealdean jarri zirenetik argi asko galdu baitzen. Handietan Nafarroa Arena gustuko dut. Obra egiten hasi baino lehen obra zuzendariarekin bildu ginen, eta sistema guztia azaldu ziguten. Frontisa egiterakoan gutxienez 20ko harria erabili zezatela esan nien, eta kasu egin ziguten.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.:

948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 3

ALTSASU Gazte agenda.

Santa ageda atzo, gaur eta bihar: Altsasuko kintoen historiaren inguruko solasaldia *Gonbidatuak izatetik protagonistak izatera* liburua eta dokumentala oinarri hartuta. **18:00etan, Intxostiaputan gazte gunean.**

LAKUNTZA Liburu aurkezpena.

Visible, In-visible Oihane Andueza Imirizaldu idazlearen liburu berriaren aurkezpena, Victor Mesanza eleberriko irudi eta musikaren egilea eta Galder Orobengoa zuzentzaile eta prozesuaren lekukoarekin. **19:00etan, udaletxeko batzar aretoan.**

ALTSASU Pilota.

Ados pilotaren Binakako Txapelketa Nagusia. Promozioa: R. de Infante – Orbegozo / Zabaleta – Agirre. Lehen maila: Etxebeste – Capellan / Etxekolonea – Mujika. **19:00etan, Burunda pilotalekuan.**

LARUNBATA 4

ALTSASU Kontzertua.

Sinfonia Navarra orkestraren *Turrillas Sinfonikoa* kontzertua, Altsasuko Erraldoiekin eta dantzariekin. **18:00etan, lortia kultur gunean.**

ALTSASU Gazte agenda.

Pintxo lehiaketa. Parte hartzea: 1,5 euro. **18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

IGANDEA 5

ETXARRI ARANATZ ZinUEMA.

Irabazi arte futbolari izan nahi duen neskaren inguruko telesailaren bigarren denboraldiaren lehenengo

kapituluaurre estreinaldia; euskarazko ikus-entzunezkoak bultzatzeko UEMAREN programaren barruan. **17:30etan, kultur etxean.**

IRURTZUN Dokumentala.

Pikuxar Dokumentala filmaren aurkezpena. Pikuxar berria egiteko prozesuaren inguruko dokumentala bazkideen elkarrizketekin eta prozesuaren irudiekin. **18:00etan, Pikuxarren.**

ASTELEHENA 6

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde. **12:00etan, Zumalakarregi plazan.**

ASTEAZKENA 8

ALTSASU Kontzentrazioa.

Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformaren elkarretaratzea. **12:00etan, osasun etxearen aurrean.**

ETXARRI ARANATZ ZinUEMA.

Emakumeak bost film laburrez osatutako bildumaren emanaldia, UEMAREN euskarazko

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Avatar: El sentido del agua gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 3 19:00
Igandea 5 19:30

Izurde mutikoa euskarazko familiarako filmaren emanaldia
Igandea 5 17:00etan

La ballena (The Whale) gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 9 19:00
Ostirala 10 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

El frío que quema zineforum filmaren emanaldia
Igandea 5 19:00

ikus-entzunezkoak sustatzeko programaren barruan. **19:00etan, kultur etxean.**

OSTEGUNA 9

ETXARRI ARANATZ Hitzaldia.

Nafarroako Torturatuen Sarearen Sakanako aurkezpen-hitzaldia. **19:00etan, kultur etxean.**

OSTIRALA 10

ALTSASU Gazte agenda.

Monopoli jokoa. **18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**




IRURTZUN Rafa Etxarri artistaren *Aurkitu ezank zeurea, aurkitu gaintunk geurea* pintura erakusketa. **Martxoaren 12ra arte. Pikuxar tabernan.**



ALTSASU *Malgaxe* emakumearen indarra argazki erakusketa Benito Pajares, Yeray Menéndez, Lobolopez, Scar Lafiniarivo, Jonathan Pisonero eta Rafa Cabalen argazkiekin osatua. **Otsailaren 12ra arte. lortia kultur gunearen erakusketa aretoan.**

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 3




Larunbata, 4



Igandea, 5



Astelehena, 6



Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren berriztatze eta birgaitzea

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatze bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta officea ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

HIGIEZINAK

ALOKAGAI

Etxe bat alokatzen da Sakanan: 683 162 018.

LEHIAKETAK

Olaztiko Udalak VII. Hiri Ihoteko Mozorro lehiaketa antolatuta du: Otsailaren 25ean izanen da eta 14 urtetik gorakoek parte har dezakete. Izena egunean bertan eman daiteke futboleko pistan egongo den zinegotziarekin hitz eginda eta bozketa orria jaso behar da, bertan besteen balorazioa egiteko. Sariak 150 euro, 100 euro eta 50 eurokoak izango dira. Egundako atsaldetako 20:00etan, dantzaldian, emango da saridunen berri.

Mozorrotutako balkoien lehiaketa Olaztin: Herri ihotea sustatu asmoz, ihotte batzordeak inauteri gaiarekin balkoi apainketa lehiaketa antolatuta du. Parte hartzaileen balkoioak otsailaren 16tik 25era apainduta mantendu beharko dira. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek otsailaren 15eko 24:00ak arteko epea du izena emateko; udaltxean izena emanez edo *olaztikohoteak@gmail.com* emailera idatziz. 150, 100 eta 50 euroko hiru sari banatuko dira. Bestalde, balkoi guztien argazkiak egingo dira eta hauek udalaren eta Inauteri Elkartearen jabetza izango dute.

Nafar Ateneo nazioarteko poesia sariaren V.edizioa martxan: Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31n amaitzen da, edizio honetarako aurkeztutako poemarioen gaia "Sorioneku" hitza da (bere esanahi eta interpretazioaren zentzu zabalean). Informazio gehiago *euskera@ateneonavarro.es* helbidean edo 948 275 302 telefonoan.

Gozamenez sexualitateari buruzko film laburren lehiaketa: *Sexu eta Harremani buruzko istorioa* leloa duen lehiaketan sexualitatearen ikuspegi positiboa ematen duten ikus-entzunezkoak aurkeztu daitezke, banaka edo taldeka, 12 eta 13 urte arteko sakandarrek parte hartu dezakete, horretarako Altsasuko Intxostiapunta gazte txokoan izena eman behar da martxoaren 5a baino lehen. 100 eta 200 euroko sari ezberdinak daude jokoan. Bi sari epaimahaia emanen ditu eta bestea gazte altsasuarrek herri bozketa bidez aukeratu dute. Aurreko edizioetako lanak *www.gozamenez.com* web orrian ikus daitezke.

OHARRAK

Altsasuko kontsumitzaileen udal bulegoa: Nafarroako Kontsumitzaileen Iratxe Elkarteak atenditzen du aurretik 012 telefonoan hitzordua hartuta. Dohaneko bitartekaritza eta laguntza juridikoa eskaintzen dute. Otsailaren 7an, 14an eta 28an etorriko dira eta martxoaren 7an, 14an, 21ean eta 28an.

Mank-ek ur kontagailuen irakurketa egingo du: Sakanako Mankomunitateak jakinarazi duenez, gaurtik aurrera ur kontagailuen irakurketa egingo du Irurtzun, Lakuntzan, Arbizun, Bakalkun, Iturmendin, Urdiainen eta Olaztagutian. Ibarreko erakundetik jakinarazi dutenez, irakurketa egiterakoan langileek etxeren batean bakarren bat opatzen ez badute oharra utziko diote. Etxejabeak hartan bere ur kontsumoaren irakurketa idatzi eta Mank-i jakinarazi beharko dio. Beltze dauden komaren aurreko zenbakiak hartu behar dira. Horretarako hiru bide daude: 948 464 867 telefonoa hots eginez, 663 399 732 telefonoa Whatsapp mezua bidaliz edo *ura@sakana-mank.eus* posta elektronikoko helbidera mezua bidaliz.

Euskara hutsezko Udalekuetara joango diren haur eta gazteentzako dirulaguntzak: Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean irau behar dute eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte buru-

tu behar dira. Informazio gehiago *www.sakana-mank.eus* web orrian eskura dezakezue.

Euskalduntzen edo alfabetatzen ari direndako dirulaguntzak: 2022ko uztailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikulak lagunduko dira, kilometrajea ez da diruz lagunduko. Ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta informetika bidezkoak, C2 mailakoak bane. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko uztailaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago *www.sakana-mank.eus* web orrian.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntza dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago *www.sakana-mank.eus* web orrian.

Altsasuko Elkartasun azokarako bilketa solidarioa: Erabiltzen ez dituzun (arropa, jostailu, maindire eta abar) eta egoera onean dauden gauzak Altsasuko Erakunde Kaleko 8. zenbakian dagoen lokalera (Sociedad deportiva zena) ekarri ostiraletan, 10:00etatik 13:00etara. Bildutakoarekin apirilaren 23an Elkartasun Azoka egingo da. Informazio gehiago *anizartean@sakana-mank.eus* emailera idatzi edo 648 070 710 telefonora deitu.

Arropa bilketa: Baduzu erabiltzen ez duzun arroparik, eta ez dakizu zer egin? Arakilo udaltxearen arkupean bilketa gune bat irekitzera goaz. Hila-beteko lehen azoka egunean, astearteetan, 11:00etatik 13:00etara. Errotxapean dagoen Elkarri Laguntza Elkarteak duen egoitzara eramango dugu. Itxipuru Taldea 620 254 230 eta Mank Anizartean 648 070 710 antolatuta.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

HERIOTZAK

- **Bernardino Martin Vicente**, ilbeltzaren 24an Etxarrenen
- **Bernardo Otxagabia Bakaikoa**, ilbeltzaren 29an Etxarri Aranatz
- **Maria Teresa Ángela Andueza Irañeta**, ilbeltzaren 31n Uharte Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

JARRI ZURE
IRAGARKI LABURRA!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak



IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta *guaixe.eus*-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELA



Zendutako gure kintoen oroimenez

Beti egongo zarete gure oroimenean

Altsasuko 82ko kintoak

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo *eskelak@guaixe.eus*

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 • *www.izarratanatorio.com*

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 *www.tanatoriosirache.es*



Dopamina teatro konpainiako kideak; erdian, Elur Olabide. UTZITAKOIA

Gorputzaren barruko bidaia eszenifikatzen

Elur Olabide Izquierdo antzerkigile altsasuarrak Dopamina teatro konpainia sortu du Madrilgo zenbait lagunekin batera. Asteburuan 'El viaje de un Donut' antzezlanaren aurkeztuko dute Iruñean; azukrearen kalteaz irakasten duen lana

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Oso-oso urduri" dago Elur Olabide Izquierdo "etxera" itzuli delako: Nafarroako Antzerki Eskolara. *El viaje de un Donut* antzezlanaren aurkeztuko du bihar eta etzi, larunbata eta igandea, 18:00etan, azken urteak Madrilen ikasten egon ondoren. "Nafarroako Antzerki Eskolako ikasi nuen eta eta Madrileko jendearekin itzultzea... Oso pozik eta emozionatuta nago". Arturo Bernal Nazioarteko Antzerki Eskolan goi mailako ikasketak egin ditu Olabidek eta bertan ezagututako lagunekin Dopamina teatro konpainia sortu zuten.

Dopamina teatro konpainia nazioarteko talde bat dela esan daiteke, izan ere, kideen artean "valentziar bat, alemaniar bat eta brasildar bat" daudela azaldu du Olabidek. Guztira, bost dira kideak: Zales San Segundo, Renata Castro Campos, Kai Sánchez, Isabel Denzel eta Olabide bera. Konpainia 2022ko

irailean sortu zuten, antzerki fisikoko goi mailako ikasketak ekainean amaitu ondoren.

"Ikasturte amaieran gradu amaierako proiektuak aurkeztu genituen eta Isabelen amaierako proiektua hau zen, baina motzagoa". Denzelen lanak "15 edo 20 minutu" irauten zuten eta emaitzarekin "oso pozik" gelditu zirenez, oportunitate bueltan antzezlanaren luzatzea erabaki zuten. "Ekainean egin genuen kale antzerki edo ikuskizun bezala utzi dugu, eta hau antzokietan egiteko".

"Isabelek zerbait pedagogikoa egin nahi zuen. Haurrekin pila bat egin du lan, eta bereziki nahi zuen azukreak gorputza nola kaltetzen zuten erakustea".

"EGILEAK AZUKREAK GORPUTZEAN SORTZEN DITUEN KALTEAK ERAKUTSI NAHI ZITUEN"

Idea horrekin lantalderean joan zen eta "baietz esan genion". Haurrei eta familiei zuzendutako antzezlanak sortzeko ideiarekin sortu zuten antzerki taldea. Iruñean aurkeztuko duten antzezlanaren kasuan, sei urtetik gorakoendako gomendatuta dago.

Protagonistak

Neuronak, heste biloak, odola... *El viaje de un Donut* antzezlanaren agertzen diren pertsonaiak gorputzaren barruan aurki daitezkeen "gauzak" dira. "Antzezlanaren gorputzaren barruan sartzen gara; eszenatokia gorputz batean sartzen dugu". Argumentuari dagokionez, neska baten egunerokotasuna kontatzen da: gosaltzen du, eskolara joaten da, eta hamaiketakoan Donut bat jaten du. "Eta, orduan, erroskila gorputzean sartzen da, gorputz guztitik pasatzen da eta bidaian neuronak agertzen dira, odola eta horrelako gauzak".

Pertsonaia ezohiko hauek egiteko egileak "gorputzak nola funtzionatzen duen" jakiteko "asko ikasi" duela azaldu du Olabidek: "Bideoak ikusi ditu, odola nola mugitzen den, nola sortzen den eta horrelakoak". "Benetan" geratzen diren irudi horiek hartu dituzte eta "abstrakzioa" egin dute. "Dinamika hori nola eraman oholtzara eta nola sartu publiko mugimendua eta sentsazio horretan".

El viaje de un Donut antzezlanaren prozesu luzea izan da eta entseguen urriaren hasieran hasi zirela esan du aktore altsasuarrak. Iruñeko aurkezpenaren aurreko aste honetan erresidentzia artistikoa egin dute Nafarroako Antzerki Eskolan, "goiz eta arratsaldez gaude han, topera". Datorren hilabetean antzezlanaren antzerki jaialdi batean aurkeztuko dute

eta mugitzen hasi nahi dutela esan du Olabidek. Gainera, ikasketetara iristea gustatuko litzazieke ere, eta behin antzezlanaren ikusi ondoren ikasleekin lantzeko dinamika eta unitate didaktikoa prestatzen ari dira ere.

Fisikoa

Ekainean amaitu zituen Olabidek antzerki fisikoko goi mailako ikasketak, Madrilen, eta Dopamina teatro konpainiarekin egiten ari den *El viaje de un Donut* antzezlanaren ez ezik, Olabide eszenatokiaren beste aldean lan bat prestatzen ari da; zuzendaria da "heroinari edo drogari buruzko" lan batean. Laster aurkeztuko du. "Horrekin nago". Datorren ikasturterako dantza ikastea pentsatzen ari da ere, "antzerki fisikoa ikasi dudanez, dantzarekin nahastea gustatuko litzaidake".



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Irulegiko eskuaren distira eta egun gris hauek kasualitatez beterik

Azken aldi honetan Irulegiko eskuaren distira itzali dela dirudi. Hasierako poz hura atzean utzi eta jendea bere zereginetara itzuli da. Lana, gerra, bizitzaren garestitzea, hotza... elurra eta guzti egin du. Urte berriko ur goienak eta barrenak urrun gelditu zaizkigu eta hemendik Aste Santuko oporrak arteko maldan jai gutxi ikusten ditugu. Jendea eskuaz ahaztu dela eta jada Sorionekua ez dela emango luke, tristurak harrapatu gaituela.

Eta hala eta guztiz ere, Bizkaiko Euskal Filologo Taldearen osatzen duten Joseba Butro, Jokin De Pedro, Juan Manuel Etxebarria, Alberto Mardones eta Pilare Baraiazarra ilusioz ari dira oraindik. Ez dute eskua ahantzi eta *Alea* aldizkari digitaletik zorion mezu hau helarazten digute:

"Zorion ukan denak hemen haiek dira aterpen, hots irri eta musu, ez ahakarri eraduki on".

Bizkaitarrek "T" itxurako grafika baskonikoa, Eduardo Orduña Aznarren moduan, "ts" afrikatu moduan irakurtzen dute, eta oTir-tan "hots irri eta m-" bezala ulertzen dute. Nik, berriz, "T" itxurako grafia

baskonikoa "Nb" sudurkari talde baten ordeztu dagoela uste dut, eta hauxe da nire irakurketa:

"Zorionekua den ek-behegirate (hu)rren, on birretan etse a garri erhaukon".

Kasualitatea izango da, baina kasualitate ederra ate batean zegoen esku bat izatea, eta testuan erraz ate eta etxe antzematea. Kasualitatea da begira(tu) antzeko aditz bat agertzea (zenbait lekutan babes(tu) adierarekin erabiltzen dena). Kasualitatea, aterren 'ate hurren' formaren antzerkoa izatea. Zorionekua, ateka hurreratzen dena babes bila. Birritan zorionekua etxean babesa aurkitzen duena. Kasualitatea oTir-tan "on birretan" irakurri ahal izatea. Kasualitatea, etxe -a, etxe hau. Kasualitatea, garri hitzak berak Orotariko Euskal Hiztegiko 3. azepzioan "merezki izatea" esanahia edukitzea (Jauna, zu bai zara nor etxe honetan sartzeko). Kasualitatea, erhaukon "derauko" (dio) adizkitik hain hurren izatea. Kasualitate asko egun gris hauetan amesteko. Sorionekua izan gaitzen eta, hots, irri eta musu pila denondako.



Rafa Etxarri Azpiroz margolaria Pikuxarren.

"Gu kolorea gara; nahastean gauza ederrak sortzen dira"

RAFA ETXARRI AZPIROZ MARGOLARIA

Arruizko artistak bizipozez eta baikortasunez betetako 'Aurkitu ezank hirea, aurkitu gaitunk geurea' erakusketa mustu du Pikuxar euskal txokoa

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

"Pertsona normal" bat dela esan du Rafa Etxarri Azpirozek, "bere tartetxoetan margotzen duena; edo nik esaten dudana bezala paperak zikindu egiten dituena". Besteek nola dagoen zikinduta esatea dagokiela gaineratu du. Ibeltzaren 28an *Aurkitu ezank zeurea, aurkitu gaitunk geurea* margolan erakusketa mustu zuen Pikuxar euskal txokoaren tabernan, martxoaren 12ra arte ikusgai egonen dena. Nerea Baldaren testuek osatzen dute erakusketa.

Noiz hasi zinen margotzen?

Aspaldi. Orain dela hogeitun baina gehiago hasi nintzen zerbait egiten. Garai hartan erakusketa pare bat egin nituen eta gero fase luze batean ez dut gauza handirik egin. Pandemia

"PIKUXAR PROIEKTUA EZAGUTZEKO GOGOA NUEN; ERAKUSKETA OMENALDI BAT ERE BADA"

aurretik hasi nintzen berriro, zerbait egiteko gogoa banuen, baina pandemiak moztu zidan. Jendea etxean sartu zen eta gauzak egiten hasi zen; niri giro horrek ez zidan laguntzen. Aurreko urtean hasi nintzen berriro margotzen. Banuen gogoa Pikuxar ezagutzeko, taberna eta proiektua, eta sartu nintzen. Pentsatu nuen hemen erakusketa bat egiteko aukera zegoela, tokia gustatzen zait. Proposatzen nien eta beraiekin lana egitea gozada bat izan da.

Berez, Pikuxarrendako sortutako erakusketa bat da?

Berez, ez. Aurretik banituen zenbait lan eginda, baina hemen disposizioa zela eta gauza dezente honetarako egindakoak dira. Niretzako margotzea zure barruan dagoena modu aske batean kanporatzea da inolako baldintzarik gabe. Horren bigarren zatia da ez baduzu lan hori partekatzen erdizka gelditzen dela. Lan hori partekatze-ko aukera izatean oso gozoa da. Beti egon naiz alde sozialean lanean; ez nuke ulertuko harreman hori ez sortzea. Eragin soziala ere izateko.

Zure margolanetan kolorea nabarmentzen da.

Kolorea alaitasunarekin eta baikortasunarekin lotzen dut. Orduan, nik nahi nuen jende guztiak daukan izaera baikor hori ateratzea eta probokatzea. Ariketa bat izatea nahi dut. Ez izatea ea zer gauza ikusten den edo zer ez den ikusten. Hausnarketa moduko bat izatea nahi dut, gonbidapen bat, bakoitzak hartuko du nahi duen bezala. Orokorrean, zer sortzen dizun barrutik. Bakoitzak hausnarketa hori egitera probokatu nahi dut. Ildo horretatik dator sortu dugun lelotxo: *Aurkitu ezan edo ezak zeurea, aurkitu gaitun edo gaituk geurea*. Bakoitzaren kolore hortatik hasita arlo sozialera edo guregana eramanez. Nik ulertzen dut nirea dena partekatzen dudanean gurea bihurtzen dela. Orokorrean bakoitzaren egoera eta munduaren egoera momentu honetan nahiko eroa da. Nereak oso ongi idatzi du. Etengabe toki batetik bestera joaten gara, ez dago denborarik ezertarako, ezin gara ezer egin gabe egon, ez dugu gure balioa eta ondoan dagoenaren balioa ikusten, ez dugu balio soziala eta kreatiboa ikusten, dena mediatizatuta dago eta benetakoa dena ukitzea kostatzen da. Mundua kolore bakar batekin margotzen digute, dena nahiko monokromoa da. Ezin gara desberdinak eta anitzak izan. Aldiz, nik uste dut denok sekulako kolore inten-

"NIK ULERTZEN DUT NIREA DENA PARTEKATZEN DUDANEAN GUREA BIHURTZEN DELA"

tsioak ditugula eta gure koloreak beste batzuekin nahastean ditugunean gauza oso politak sortzen dira; aukera bikainak eta ederrak. Alde horretatik horrelako proiektuei, Pikuxar bezalako proiektuei, omenaldia egin nahi nien. Gu kolorea gara eta nahastean erakusten digutenaren kontrakoa sortzen da. Herri bezala sekulako kolorea izan dugu beti, baina historiaren momentu batean kolore hori moztu egin zen. Poliki-poliki berreskuratzen ari gara, baina oraindik atera behar da.

Nerea Baldak testuak jarri ditu. Nola sortu zen elkarlana?

Idatzi duena ederra iruditzen zait. Nahiko modu espontaneoan sortu zen. Nik baneukan erakusketa egiteko ideia hori, eta Ike-rrekin, Pikuxarreko erakusketak eramaten dituenarekin, barran elkartu nintzen eta berak esan zidan pertsona bat zegoela egin zitekeela. Hizketan geundela Nerea atzeko mahaian zegoen. Gonbidapena luzatu nion eta baietz esan zuen. Nire asmoa helarazi nion eta zer partekatu nahi nuen esan nion eta berak bere interpretazioa egin du eta ederra iruditzen zait. Ikusgarria da berak daukan abilitadea idazterakoan.

Beti margotu izan duzu horrela?

Hasieran beste gauzatxo batzuk egiten nituen. Alde kreatiboari lotutako espazioak betetzen nituen. Eraikuntzari lotutakoak eta eskulturak egiten nituen. Baina horretarako espazioa behar duzu eta momentu batean margotzeko aukera ikusi nuen eta margotzen hasi nintzen. Hasieratik nahiko koloretsu margotu izan dut. Barrutik ateratzen zait baikortasun hori ateratzea. Sortzeko ez dut ezer berezirik behar. Lasaitasun pixka bat. Erabat autodidakta naiz. Modu erabat librean koloreak jartzen hasten naiz eta hortik formak sortzen hasten dira. Azkenean, irudia sortzen da. Nire buruarekin nahiko lotutako irudiak dira, natura eta abar.

Pikuxarren martxoaren 12ra arte egongo da, gero mugituko duzu?

Aukera badago bai. Pikuxarreko esperientzia polita izaten ari da eta pila bat eskertzen dut atera izana. Mundu honetan nahiko berria naiz eta ea hemendik aurrera mugitzeko aukera dudana Sakanatik, esaterako. Altsasu aldean mugimendua dago eta hasi naiz atea josten.



Santos Iragi Uhalde Santa Ageda bezperako koruko kidea.

"Santa Ageda bezperan giroa sortu nahi genuen"

Laster Irurtzngo Santa Ageda bezperako koruak 40 urte beteko ditu. Lau hamarkada hauetan Santos Iragi Uhalde irurtzundarra, otsailaren 4an, koplak kantatzera aterata. Aizpea euskara taldeak, Pikuxarren laguntzarekin, antolatzen du tradizioa

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

1 Noiztik ateratzen da Irurtzngo Santa Ageda bezperako korua?

Gutxi gorabehera 1985ean hasi ginen. Duela 38 urte inguru. Aizpea euskara taldearekin antolatzen genuen. Pandemiarekin ez ginen atera; baina aurreko urtean atera ginen.

2 Nola sortu zenuten? Zergatik?

Herrian giroa sortu nahi genuen; euskal giroa sortzea zen helburua. 40ren bat ibiltzen gara koruan. Urtero ateratzen gara. Haurrek ere parte hartzen dute. Irekia da eta edonor etor daiteke.

3 Zer abesti kantatzen duzue?

Zazpi koplak kantatzen ditugu, eta azkeneko biak guk sortutakoak dira. Beste guztiak betikoak, tradizionalak: *Santa Ageda bezpera degu...* Duela hogeit bat urte sortu genituen. Abestietan herrian euskarari garrantzia gehiago eman behar zaiola kantatzen dugu; euskara gehiago erabili behar dela. Aizpearekin sortu genituen.

4 Baserritarrez jantzen zarete?

Bai, saiatzen gara. Denak ez doaz horrela jantzita, baina saiatzen gara; eta makilak eskuetan, jakina.

5 Aurretik entseatzen duzue?

Hasiera bai, hiru edo lau egunez aritzen ginen prestatzen. Gaur egun, suposatzen da denok ezagutzen ditugula abestiak eta letrak. Egunean bertan koplak paper batean banatzen dira.

6 Zer ibilbide egiten duzue?

Orain Foru plazan hasten gara, baina lehen kultur etxean hasten

ginen, eliza zaharrean. Herrian barna ibiltzen gara. Ez dugu ibilbide zehatz bat, saiatzen gara leku guztietatik pasatzen. Egunaren araberakoa izaten da, eguraldi oso txarra egiten duenean adibidez gutxiago gelditzen gara. Elurra-ekin eta abar ibili gara ere. Trikitiarekin joaten gara ere.

7 Eskean ibiltzen zarete?

Ez dugu eskatzen, baina zenbait lekutan eta herritarrek zenbait ematen digute. Puxka biltzan bezala edo ematen digute. Batez ere badaude bi leku beti gelditzen garenak.

8 Zuzendaririk baduzue?

Ez dago zuzendaririk. Erritmoa jarraitzen saiatzen gara, eta batzuetan hobekiago egiten dugu eta beste batzuetan ez hain ongi.

9 Aurretik Santa Ageda tradizio-rik bazegoen?

Uste dut ezetz, ez zegoela ezer. Gaur egun nahiko errotuta dago herrian. Bai Santa Ageda bezpera bai beste zenbait festa ere. Jarraituko du izaten.

10 Hainbeste urtetan anekdota asko biziko zenituzten?

Behin kanpotik etorritako emakume bat beldurtu egin zen makilen soinuak eta abesten entzuten zuelako eta uste zuen ez dakit zer zela, zerbait arraroa zela. Zer gertatzen zen ikustera aterata zen eta gero koruak zirela azaltzean lasai gelditu zen.

11 Urtean zehar, gehiagotan ateratzen zarete?

Bai, Irurtzun Kantuz egiten dugu eta normalean festetan ateratzen gara. Zerbait berezia egiten denean ere aritzen gara.



MATRIKULAZIO

KANPAINA

2023-2024



*** Kanpalarako behar dituzun euskarri guztiak prestatuko dizkizugu**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gik
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

f o

619 821 436
Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus